



LUCIA MERUELO

Zaldu Trail lasterketa lehiatuko dute zapatuan Zaldibarren, Durangaldeko Kopako hirugarren proba / 26



Bizkaiko Erromeria Eguna egingo dute Durangon, urriaren 4an; egun osoko festa izango da / 24



OTXANDIOKO JAIK / 13



ZORNOTZAKO JAIK / 17



Maritxu Telleria eta Alazne Intxauspe liburua eskutan, Abadiñoako Murueta baserriko ortuan.

"EMAKUME BASERRITARRAK GARA, ETA HARRO GAUDE"

Emakume baserritarrei ahotsa eman asmoz, Bizkaiko EHNEk herrialdeko hamar emakume ekoizleren bizipenak batu ditu 'Erein, borrokatu, bizi' liburuan. Maribi Ugarteburu kazetariak elkarriketatu ditu hamarrak, tartean, Durangaldeko bi: Maritxu Telleria eta Alazne Intxauspe. / 2-3

HOME SCHMIDT HOME
SUKALDEAK ETA ETXEKO ALTZARIAK

Uztaila | 2025

UDAKO MERKEALDIA

Mini-kanpainaren aurkezpena

Abadiño

www.homedesign.schmidt | 946 526 195

Ekaitz Herrera LEHEN SEKTOREA

Bizkaiko emakume baserritarrei ahotza eta ikusgarritasuna eman asmoz, EHNE sindikatuak liburu batean batu ditu herrialdeko hamar emakume baserritarren bizipenak. Maribi Ugarteburu kazetari amorotoarrak elkarrizketatu ditu hamarrak, eta bera arduratu da denen bizipenak kontatzeaz. Jatorri, belaunaldi eta bizipen desberdineko ahotsak batu ditu, tartean, Durangaldeko kide bi: beharra Arrazolako ortuetan egindako Maritxu Telleria (Oñati, 1957) eta Orozketan ortugintzan diharduen Alazne Intxauspe (Andoain, 1984). Argi diote: "Baserritarrak izateaz harro gaude".

Belaunaldi desberdinekoak izan arren, oinarri-oinarrian abiapuntu komuna duzue: biok zarete Durangaldera etorritakoak, eta biok utzi zenituzten lan urbanoak baserritik bizitzeko.

Maritxu Telleria: Maitasunak gauza ugari eman, beste hainbat kendu eta eraldatu ditzake. Fabrika lan egin izan dut hainbat urtez, Oñatin, eta ezkondu eta pare bat urtera, alaba jaio-takoan, Arrazolan bizitzen hasi nintzen senarrarenean. Bertan hasi nintzen ortuko lanetan, asteburuetan, aste barruan Oñatira joaten jarraitzen nuen-eta, fabrikara. Amaginarrebak laguntzen zidan ortuan. Azkenean, senarrak eta biok baserritik bizitzeko erabakia hartu genuen.

Alazne Intxauspe: Nik Humanitateak eta Enpresa ikasketak ditut eginak, eta hainbat urtez jardun dut Euskal Telebistan. Alabaina, nire bikotekidea ere eskualde honetakoa denez, hemengo EHNEk agroekologia ikastaro bat eskaintzen zuela ikusi eta izena eman genuen. Beti izan dugu ardura edo jakin-min sozial hori, munduarekiko, elikadurarekiko. Ikusi nuen nire lanak baldintza hobekak eskaintzen zizkidan arren, ez ninduela asebetetzen. Baserri-ratzea eta beste balore batzuk lantzea posible zela ikusi genuen. Eta halantxik, telebista utzi eta baserritik bizitzen hasi nintzen. 12 urte daramatzagu honetan. **Batzen zaituzten beste elementu bat ortugintza da. Maritxuk arlo horretan jardun du, eta Alaznek hor dihardu gaur egun. Hor ere loratu al zaizue maitasunik?**

M.T.: Dudarik barik. Lurrari lotuta lan egitea eta lur horretan

"Baserria ez da lana bakarrik, bizitzeko modu bat ere bada"

MARITXU TELLERIA ETA ALAZNE INTXAUSPE ORTUARI EKOIZLEAK

Bizkaiko EHNE sindikatuak herrialdeko hamar emakume baserritarren testigantzak batu ditu 'Erein, borrokatu, bizi' liburuan, tartean, Telleriarenak eta Intxausperenak



Telleria eta Intxauspe, Abadiñoko Murueta baserriko ortuan.

bizitzeko zoragarria da, bizitzari ezin zaio gehiagorik eskatu.

A.I.: Gizartea hain doa azkar, gu geu ere gugandik aldentzen gabiltzala dirudiela. Iruditzen zait ortugintza moduko prozesuetan konexioa lortzen duzula lurrarekin. Beharbada diru gutxiago daukat, baina honek nire buruagaz bat egiteko aukera eskaini dit. Egia da ez dela erraza, eguneroko erronka dela. Hemen saldu behar duzu, hemen ikusgarri egin. Gasolina, plastikoa, prezioak goraka doaz. Ez gara mundutik deskonektatuta bizi, baina beste bake eta patxada batekin bizi dut dena.

M.T.: Bat nator. Banandu nintzenean, Arrazolatik Oñatira bueltatu nintzen ostalaritzan lan egitera. Hamar urte egin nituen han, eta gaixotu egin nintzen. Nire senarra hil zenean eta semeak artzain izan gura zuela esan zidanean, Arrazolara bueltatu nintzen hari laguntzera. Gauza bat argi neukan: ni osatzeko lurrari lotuta egon behar nuela, bestela, ez nintzen-eta osatuko. Eta egia da Arrazolara bueltatzean eta lurragaz osteratzen ere hartu emanetan hasi nintze-

ALAZNE INTXAUSPE:
"TEORIA ONDO DAKIGU, BAINA GERO EZ DUGU BERTOKOA KONTSUMITZEN"

nean, gaixotasunari buelta ematen hasi nintzela.

Liburuko testigantzetan azpimarratzen den beste ezaugarri bat zaintzarena da. Familiaren zaintza, uztarena, naturarena. Hori kontzienteki bizi izan duzue?

A.I.: Kontzienteki, beharbada, ez, baina egia da mugimendu feministaren lanketari esker kontzienteago naizela. Hau da, izena jarri diet orain arte txikitako sozializazio prozesuagatik izandako portaerei: gurasoekiko hartu emanak zaintzea, inguruko edadetuak zaintzea, lurra zaintzea. Gu hiru langile gara, baina iruditzen zait sarritan nik dudala egunerokotasuna zaintzeko ardura hori. Bai, ortuariak zaindu beharko dira, simaurra zabaldu ere bai, baina otordurik edo bizitzaren mantenurik gabe, gainerakoak ez du balio.

M.T.: Zaintza alor guztietan dago, eta emakumeon arduratzat hartu izan da, nahiz eta gauzak apurka-apurka aldatzen dabiltzan. Gero, kontuan hartu behar da guk bakarrik barik, gure aldameneko emakumeek ere zaindu gaituztela gu eta ingurunea. Gu hasi ginen lurra zaintzen, baina haiek gu zaintzen gintuzten. EHNE sindikatuan ere halantxik izan da. Emakumeak beti egon dira hor, etxeari eta sindikatuari bere denbora eskaintzen.

Belaunaldi desberdinetakoak zarete. Nola baloratzen duzue sektorearen bilakaera?

M.T.: Hamar urtez sektoretik kanpo egon eta gero, ortugintzara bueltatu nintzenean, egundoko hutsunea sentitu nuen. Nik ezagututako betiko jendea, niretzat erreferenteak zirenak, Murueta, Salterain, Juantxu... jada ez zebiltzan baserrian lanean. Belaunaldi berriari dagokionez, iruditzen zait gutxi direla honetan aritu gura dutenak. Denbora asko exijitzen du, eta baserrian ez dago astelehenetik barikurako lanik. Nekazaritza bizitzeko bizitzeko era bat da, beste bizi-modu bat.

A.I.: Askoz ere langile gutxiago gaude sektorean, eta asko kostatzen da jende berria sartzea. Eta jende berria sartu arren, zaila da gero horiek denboran irautea. Atera kontuak: iaz, zazpi nekazaritza proiektu berri hasi ziren Bizkaian. Horien artean berriak zein erreleboa hartzea erabaki zuten ekintzaileak zeuden. Zazpi baino ez, hemengo elikadura dependentziaren

aurrean. Iruditzen zait, gizarte modura, ez dugula ardurarik eta konpromisorik gura. Barru-barruko sentimendurik edo bulka-darik barik, zaila da.

M.T.: Kasurik onenean, honetan aritu gura duenak, martxan dauden baserri, lur eta azpiegiturretan lortuko du erreleboa. Baina jabetzarik ez baduzu, ezinezkoa izango zaizu hutsetik halako inbertsioetan sartzea.

Sindikalgintza ere zuen bizimodua-ren zati da. Zu, Maritxu, Bizkaiko EHNEren exekutibako lehenengo emakumea izan zinen.

M.T.: Beti esan dut lehenengoa izango nintzela barruko ardura postu batera ailegatzen, baina beti gogoratzen dut asko izan zirela, kanpoan, sindikatuaren batzarretan parte hartzen zuten emakumeak. Ardura hartu nuen, gaztea nintzen, eta etxean amaginarrebak edo izekoren batek laguntzen zidan zaintza lanetan. Gauzez egiten genituen bilerak, abeltzainek behien esnea baturikoan. Juantxu Elorriagak batzen ninduen San Blas hotelaren parean, eta Bilbora joaten ginen biok, bilerara. Gero, batzar horien berri herririk herri ematen genuen. Lehenengoa nintze-

la exekutiban? Bai, baina emakume asko egon zen nire aurretik sindikatuan parte hartzen. Haiek ireki zuten bidea.

Liburuan diozunez, exekutibako lehen urteetan 'lorontzi' modura sentitu zinen.

M.T.: Bai, hasiera-hasieretan, bai, baina baziren aurrera begiratzeko jakin zutenak ere. Bilboko batzar haietan hamarzor-tzi bat batzen ginen, eta abeltzaintza-politikari, esnearen prezioari eta grebei buruz baino ez zen berba egiten. Izan ere, normalean, abeltzaintza gizo-

nezkoen lan-esparrua izan da, eta ortugintzan, aldiz, emakumeok jardun izan dugu gehienbat. Nire buruari galdetzen nion: "Zer egiten dut hemen?". Abeltzantzatik harago, sektorean beste hainbat arazo zeudela azaldu behar izan nuen. Halantxik hasi ginen gainerako esparruak lantzen. Dena dela, aitortu behar dut oso babestuta sentitu nintzela. Ez naiz sekula gutxietsia sentitu.

Alazne: zuk nola ikusten duzu emakumea egungo sindikalgintzan?

A.I.: Orain arteko emakumeen lana aitortu gura dut, gure aurrekoei esker iritsi gara-eta gaur egungo lekura. Beharbada, presentzia eta lege gehiago dago, adibidez, Emakume baserritarren estatutua. Bide hori aurretik egondako emakumeen presioari esker izan da. Oraindik ere abeltzaintzak jarraitzen du sektorerik indartsuena izaten, baina ortugintza ekologikoak garapena izan du bere xumetasunean. Bestalde, prozesu parte-hartzaileak zabaldu dira, eta foro horietan emakumeak daudenez, ahotsa ere hartu dugu. Bidea egiten gabil-tza, lehengo hariari tiraka.

Etorkizunera begiratu dezagun: nola ikusten duzue sektorearen geroa?

M.T.: Administrazioak lehen sektoreko politikak aldatu behar dituela uste dut. Erretiroa hartuta nagoen arren, hori da ikusten dudana. Lehen aipatu bezala, proiektu bat hutsetik hasi gura baduzu, laguntza beharko duzu ezinbestean. Saltzen dituztena da errentagarritasuna topatuko diozula baserriko lanari, baina lurra eta baserria zureak baldin badira lortuko duzu. Hutsetik, egundoko inbertsioa egin-da, zaila izango zaizu zorpetzea-

ri aurre egin eta etekina lortzea. Herritarrak sektorean lanean mantendu gura baditu, administrazioak bestelako laguntzak eman beharko lituzke. Adibidez, artalde dezente bat sortzeko laguntza artzain hasi gura duenari. Ortugintzan ere, ezin dira 10.000 metro hutsetik ipini. Laguntzak beharrezkoak dira.

A.I.: Nire ustez, jende berria sartzea da erronka, desagertu egingo gara-eta bestela. Matematikak hori dio, ekoizle berriak ez direla erretiroei aurre egiteko bestekoak. Erraztasunak behar ditugu hor. Bestalde, iruditzen zait deskonexio handia dagoela baserriarekiko. Hau da: Orozketatik Durangora bost kilometro baino gehiago dagoela dirudi. Maila teorikoan dena dakigu, dena irakurri dugu, baina gero hori ez dugu praktikara eramaten, sasoikoa jaten, bertokoa kontsumitzen. Kontraesan horiek normaltasun osoz bizi ditugu. Eskubide indibidualen zera hori dugu, baina gero kosta egiten zaigu konexioan bizi garela eta guztiak oreka behar duela ulertzea. Uste dut hori ere badela aurrean dugun beste erronka bat.

ALAZNE INTXAUSPE:
"BASERRITIK BIZI
NAIZENETIK BESTE
BAKE BATEKIN,
PATXADAZ BIZI NAIZ"

MARITXU TELLERIA:
"LURRARI LOTUTA LAN
EGITEA ETA LUR
HORRETAN BIZITZEA
ZORAGARRIA DA"

MARITXU TELLERIA:
"EXEKUTIBARA SARTU
AURRETIK, EMAKUME
ASKOK PARTE HARTU
ZUEN SINDIKATUAN"

ALAZNE INTXAUSPE:
"EKOIZLE GUTXIAGO
GABILTZA, ASKO
KOSTATZEN DA JENDE
BERRIA SARTZEA"

Hamar ahotseko historia kolektiboa

'Erein, borrokatu, bizi' liburua Bizkaiko hamar emakume baserritarren ahotza gizarteratzeko helburuz jaio da. Maribi Ugarteburu Markuerkiaga (Amoroto, 1968) kazetariak ondu du lana, herrialdeko EHNEren enkarguz. "Emakumeak beti egon dira sindikatuan, beti egon dira martxan, baina ez dira ikusarazi. Hori dela eta, eurei ahotsa ematea erabaki du Bizkaiko EHNEK. Azterlan hotz bat egin beharrean, hamar emakumeen bizipenetatik abiatu eta baserri munduaren bilakaera kolektiboa kontatu dugu. Izan ere, testigantzok pertsonalak bezain kolektiboak dira, emakume hauek beti funtzionatu dute-eta elkarregaz, sarean, auzoan, sindikatuan. Plano horiek biek bat egiten dute liburuan", azaldu du Ugarteburuk.

Hamar emakumeak Bizkaiko EHNEK aukeratu ditu, modu batera edo bestera sindikatuan inplikaturik egon dira-eta. Euretariko bat, adibidez, Libe Plaza da (Lekeitio, 1936). Ez da ardura postuetan inoiz egon, baina beti egon da lanerako prest, izan azoketan taloak saltzen, mobilizazioetan zein sindikatuaren beste edozein jardueratan. Gainerako bederatzia, modu batera ala bestera, sindikatuaren zati izan dira, izan teknikari

ala zuzendaritzako kide. Maritxu Telleria (Oñati, 1957), Mariasun Borde (Ugao, 1954), Maite Aristegi (Bergara, 1962), Arantza Arrien (Gernika-Lumo, 1963), Glori Dehesa (Karrantza, 1959), Helen Groome (Northampton, 1958), Malu Egiluz (Zeanuri, 1962), Amets Ladislao (Algorta, 1979) eta Alazne Intxauspe (Andoain, 1984) dira.

Hamar emakumeek istorio eta abiapuntu desberdinak dituzten arren, liburuak argi uzten du ezaugarri komun ugari dituztela. Horien artean daude, Ugartebururen berbetan, "lurrarekiko eta haren zainketa-erakikio maitasuna eta atxikimendua, lurreko behargina izateagatik harrotasuna eta gainerako emakume baserritarrekin saretuta egotea". Kazetariaren esanetan, beste ezaugarri aipagarrietako bat emakumeen "kemena" da. "Bizimodu gorabeheratsuak egokitu zaizkie, eta aurrera jarraitzeko indar itzela izan dute. Oso emakume ahaldunduak dira", nabarmendu du: "Feminismoa kontzeptu modura ia-ia izendatu ere egiten ez zen sasoietan, emakume hauek

"FEMINISMOA GORPUZTU ZUTEN,
FEMINISMOA KONTZCEPTU MODURA
IA-IA IZENDATZEN EZ ZEN SASOIAN"



Elkarrizketatuetako batzuk Maribi Ugarteburu kazetariagaz (Goian, ezkerrean). MARIA ORTEGA ZUBIATE

feminismoa gorpuzten zuten. Beren bizitzek hori erakusten dute". Alde horretatik, liburuko protagonistek argi utzi dute beren istorioak eta bizipenak estrapolagarriak direla gainerako emakume baserritarrengana. "Liburua Arteagako herriko bentan aurkeztu genuenean (Arratia), emakume baserritarrek argi esan zuten: 'Gu deitu gaituzue elkarrizketara, baina guk bizitakoak emakume askoren ispilu dira'", kontatu du Ugarteburuk.

Horrez gainera, liburua irakurtzen duenak "konpromiso kolektiboaren balioa" ezagutuko duela azpimarratu du kazetariak,

"gaur egun nahiko garesti dago-eta". Hau da, irakurleak "denbora, jakintza eta ahalegina kausa komun baten zerbitzura trukean ezer espero barik pintzearen balioa" ezagutuko duela iragarri du kazetariak. Gainerako ekarpenen artean, kezka eta nekazaritza eta abeltzaintza iraunkorrarekiko ardurak daude.

Liburua ez dago salgai, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren babesletza izan du-eta. Alabaina, argitalpena Bizkaiko EHNEren egoitzara joanda eskatu daiteke, Abadiño Muruetan. Aurrerago, liburua *ehnebizkaia.eus* atarian ipiniko dute doan.

Deskontaminazio lanak martxan Fundifes ohian

Fundifes lantegiko orubea berreskuratzeko lanak "funtsezko" momentu batean daude, Durangoko Udalak jakinarazi duenez. Teknologia "berritzailea" erabiltzen dabilta horretarako: onddoen bidezko mikorremediazioa eta biopila dinamikoak, besteak beste

Aitziber Basauri DURANGO

Fundifes lantegiko lursaila izandakoa deskontaminatzeko lanak aurrera doaz apurka-apurka. Udalak jakinarazi duenez, orubea garbitzeko jarduketak "funtsezko" momentu batean daude, teknologia jasagarri eta "aitzindariekin" dabilta-eta lurra garbitzen. Besteak beste, onddoen bidezko mikorremediazioa eta biopila dinamikoak darabiltzate lanok egiteko. "Metodo horiei esker, lurzorua ezaugarri egokitutako deskontaminazioa egin daiteke, modu eraginkorraro eta jasagarriago batean", esan du udalak. Modu horretan, urteetan "hiri-degradazioaren



Durangoko, Ihobeko eta Sprilurreko ordezkariak Fundifes ohian. DURANGOKO UDALA

foku izan den espazioa ingurumen-deskontaminazioaren erreferente" izatea gura dute. Deskontaminazio lanak Eusko Jaurlaritzak eta Durangoko Udalak bultzatu dituzte, Sprilur eta Ihobe erakunde publikoen bitartez. Mireia Elkoroiribe alkateak adierazi duenez, "proiektu honek ez du soilik orube bat berreskuratzea helburu; erakundeen arteko lankidetzak espazio degradatu bat etorkizunerako aukera bihurtzeko duen gaitasunaren adibide garbia da". Lanak bisitatzen egon ziren joan zen astean Durangoko udal ordezkariak, Ihobeko arduradunak eta Sprilurrekoak.

Ekogarapen Gunea

Fundifes lantegia hartu zuen 14.000 metro karratuko lursailan, Durangaldeko Ekogarapen Gunea sortzea dago aurreikusita, udalaren esanetan, "eskualdeko ekonomia sustatzeko eta goi-mailako prestakuntza eskaintzeko zentro estrategiko berria izango dena". Halaber, kokaleku horretan lur hartuko du Maristak ikastetxearen etorkizuneko zentroak.



Aurora Abasolo parkea.

Arropa-saltzaileen merkatua, Aurora Abasolon berriro ere

E.H. DURANGO

Musika Eskolako teilatua berritzeko lanak direla eta, arropa-saltzaileen merkatu txikia Euskotrenen lurretan antolatu dute azken hilabeteetan. Alabaina, azokak bere ohiko kokalekua berreskuratu du jada: Aurora Abasolo parkea. Bestalde, udalak jakinarazi du Musika Eskolako teilatua berritzeko obrak "erritmo onean" doazela.

Borrokengatiko atxiloketak eta trafiko istripuak gora Durangon

Lapurreta kopurua, aldiz, jaitsi egin da. Datuok udalak jakinarazi ditu, 2025eko lehen lauhileko txostena oinarri

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko Udalak 2025eko lehen lau hilabeteko segurtasun datuak kaleratu ditu Udaltzaingoaren txostenetan oinarrituta: urteko lehen hilabete horietan, 34 trafiko istripu erregistratu dituzte (49 izan ziren 2024 osoan), eta horietatik 10 biktima izan dira. Istripu-arrazoien artean 22 talka, 5 harrapatze eta bestelako 7 gertakari kontabilizatu dira. Beste 4 delitu erregistratu dituzte alkoholaren edo drogen eraginean gidatzeagaitik (13 izan ziren iaz), eta beste bat gidabaimenik barik gidatzeagaitik. Udalerrian 9 lapurreta zenbatu dituzte lehenengo lauhilekoan eta iruzurregaz loturiko beste sei. Lesioen atalean, berriz, borrokei loturiko 12 kasu erregistratu dira (19 izan ziren iazko urte osoan) eta 8 pertsona atxilotu dituzte (6, iaz). Ertzaintzaren



Udaltzaingoaren txostenean oinarritu dira.

arabera, iaz 263 lapurreta eta 22 sexu-eraso kontabilizatu ziren; adinbakoen aurkakoak izan ziren horietatik 5. Horrez gain, sexu-jazarpen kasu bat, exhibizionismoagaz lotutako 2 eta sexu-askatasunagaz lotutako beste 12 delitu ere erregistratu ziren.

Durangoko aurrekontu parte-hartzaileetako bozketa, amaituta

Orain, udaleko talde politiko-teknikoak proposamenak aztertuko ditu, boto gehien jaso dutenak lehenetsita

Ekaitz Herrera DURANGO

Aurrekontu parte-hartzaileetako bozketa fasea amaierara ailegatu da Durangon. Orain, talde politiko-teknikoak aurrekontuetan txertatu beharreko proposamenak hautatuko ditu, boto gehien jaso dituztenak lehenetsita. Aurreikuspenen arabera, udalak irailean emango du aurrekontuaren parte izatera igaroko diren behin-betiko proiektuen berri.

Guztira, 516 herritarrek parte hartu dute galdeketa, eta 1.043 boto eman dituzte. Babesik handiena jaso duten proiektuen artean irisgarritasunari, azpiegiturei eta espazio publikoei begirakoak daude. Udalak 600.000 euro baliatuko ditu herriko sei auzotako proiektuak era berdinkidean banatzeko, hau da, bakoitzean 100.000 eurora arteko inbertsioak egiteko.

Proiektuak, auzoka

Honako hauek dira boto-emakileen babesik handiena jaso duten proiektuak, auzoka. Zabalarrako eskolan haur parke inklusiboa sortzeko proposamena gailendu da San Rokeko bizilagunen artean, 106 botorekin. San Fauston, jolasguneetan zuhaitzak ipintzeko ideiak irten du garaile, 77 botorekin. Landakoko herritarrek tenis-pistetako zoladurak aldatzea bozkatu dute gehien (43 boto), eta Madalenako bizilagunek bizikletentzako bidegorria Muruetorerraino zabaltzea onetsi dute (66 boto). Erdialdean, Juan Itziarko irisgarritasuna hobetzeko proiektua izan da garaile (73 boto). Azkenik, Tabiran, Futbol 7ko zelaia berritzea lehenetsi dute, 94 botorekin. Bozketako emaitza osoa anboto.org atarian kontsultatu daiteke.

Beldar-plaga kontrolatzeko esku-hartzea San Fauston

E.H. DURANGO

Durangoko Udalak intsektu-plaga bat kontrolatzeko jarduketa egin behar izan du San Fauston. Esku hartzea Nafarroa plazaren ondoko patioan egin dute, bertako berdeguneetan orratz iletsu (*lymantria dispar*) deritzon harraren presentzia identifikatu dute-eta. Osasunerako arrisku larririk ez duen arren, harraren ile-erresumingarriek narritadurak eragin ditzakete pertsona batzuen gain, eta hainbat eragozpen zein kalte landaredian eta bizilagunen artean.

Orratz iletsuak parkeko landare bati eta haritz biri eragin die. Espezie inbaditzailea denez, zuhaitzak ahultzen ditu haren hostoak janda. Udalak tratamendua martxan jarri zuen joan zen asteburuan, eta aurreratu du uda osoan zehar egingo duela jarraipena. Halaber, herritarrei eskatu die aleegaz kontaktua saihesteko eta eremura ez gerturatzeko. Udalak zintaz babestu du eremua, eta informazio panelak ipini ditu.



Etartie proiektuko ekoizleetako batzuk kokaleku berrian.

Etartiek dendaren kokalekua aldatuko du behin-behinean

Merkatua berritzeko lanak direla eta, Kurutziaga eta Andra Mari kaleen lotunera lekualdatuko dira uztailaren 17an

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko Udalak merkatu plaza berritzeko lanak hasiko ditu uztail erdialdean. Hori dela eta, lanek iraun bitartean, hornidura-azokako dendariak jarduera ekonomikoarekin zer egin erabaki behar izan dute. Merkatuko harategiak, urdaitegiak, arrandegi biek eta ozpinetako saltzaileak aktibitatea eten behar izan dute behin-behinean. Alabaina, Etartie dendako kideek euren jardueragaz jarraitzea erabaki dute: hornidura-azoka hilabete batzuetan zarratuta egongo denez, euren denda lekualdatuko dute behin-behinean, obrak amaitu eta postu berria estreinatu arte. Uztailaren 17tik aurrera, Andra Mari, Kurutziaga eta Kanpatorrosteta kaleek bat egiten duten lokalean egongo dira ohiko jeneroa saltzen, garai bateko Eguren dendan. "Gure jenero propioa saltzen

dugu, eta udan gaudenez, are gehiago dugu saltzeko. Ortua eman eta eman dabil; piper eta tomate sasoia da. Horregaitik, jenero horri guztiari, arrautzei, gaztari, jogurtei... irtenbidea emateko, behar-beharrezkoa genuen salmenta puntuari eustea", azaldu du Urdaspal Alberdik. Momentu honetan, behin-behineko dendari azken ukituak ematen dabilta. Inbertsioari aurre egiteko oihalezko poltsak kaleratu dituzte, eta bezeroen eskura ipini.

Aurreikuspenen arabera, merkatu plaza berritzeko lanek hilabete bi iraungo dute, eta bukatutakoan, saltoki berritua estreinatuko du Etartiek: "Ez da merkatu plazako postu klasikoa, mostradore hutsa, izango. Erosleak ibilbidetxo bat egin ahal izango du dendan, produktuen artean kuriositatea aseztu" iragarri du Alberdik.

Durangoko jaiak iragartzeko kartel lehiaketara, martxan

E.H. DURANGO

Durangoko Udalak sanfaustoe-tako kartela aukeratzeko deialdia zabaldu du. Parte-hartzaile bakoitzak hiru lan aurkeztu ahal izango ditu gehienez. Diseinuek originalak eta beste inon argitaragabeak izan beharko dute, eta teknika libreekin sortu ahal izango dira. Kartelean sartu beharreko derrigorrezko testua

honako hau da: *San Fausto Jaiak 2025 Durango, Urriaren 10etik 19ra*. Lehiaketara aurkezteko, parte-hartzaileek eskaera inprimakia bete beharko dute udalaren parte-hartze plataforman.

Lanak aurkezteko azken eguna abuztuaren 28a izango da. Epaimahaiak irailaren 2an aukeratuko ditu zazpi kartel finalistak. Bozketa herrikoia irailaren 4tik 11ra egingo dute, eta diseinu irabazlea irailaren 27an iragarriko dute. Irabazleak 900 euro jasoko ditu.

Pello Zabarte zaldibartarrak irabazi du Gazte Ikerlarien saria

Zabartek Bitor Garitaonandiaren obra eta ibilbidea aztertu ditu. Uztailaren 12an egingo dute sari-banaketa

Aritz Maldonado ZALDIBAR

Zabartek *Bitor Garitaonandia. Euskal Pizkundean dagokion lekuaren bila* ikerlana egin du, XX. mendearen lehenengo herenean jardun zuen idazle, dramaturgo, musikari, kazetari eta elizgizon

zaldibartarraren lana aztertuta. Garitaonandiak hainbat diziplinatan lan egin zuen, euskara eta euskal kultura sustatzeko helburuagaz, eta ikerketa horretan, haren bizitza eta obra argitara ekarri gura izan ditu

Zabartek. Epaimahaiak Iune Ruiz Taglek, Iruri Altzerreka Martinezek eta Libe Solagaistua Zabalak osatu dute; lana "sakona eta irakurterraza" dela nabarmendu dute. Zabartek Zaldibar bere jaioterrian jasoko du saria, uztailaren 12an. Ikerlana aletuko du, eta 1.500 euroko saria jaso. Ekitaldia baino lehen, baina, Gerediagak bisita gidatua egingo du Zaldibarren, besteak beste, ospitale psikiatrikoko kaperako margolanak erakusteko. Bisita 11:00etan hasiko da.

DURANGO

Eguzki-Alde

BIZIGUNEA

2 - 3 LOGELAKO ETXEBIZITZAK

Alde batean, Oiz. Beste aldean, Untzillaitz.
Erdian zu, lorategia eta igerilekua.
Gauza ederrez inguratzeak hobetu egiten du,
zalantzarik gabe, zure bizi-kalitatea.

Zatoz Eguzki Aldera.
Utzi eguzkiari zure bizitzan sartzen.

Piso On Durangok komertzializatzen du
Montevideo Etorbidea, 5A, behea,
48200 Durango, Bizkaia
T. 946 23 26 21 www.loiola.com

Loiola

Elorrioko Pulla Azkarreta plana, hurbilago

Elorrioko Udalak Pulla Azkarreta plan partziala onartu du EH Bilduren eta EAJren aldeko botoekin; Elkarrekin Podemosek aurka bozkatu du; Elorrioko Auzo Koordinakundeak herritarrek alegazioak aurkezteko epea luzatzea eskatu du

A. M. ELORRIO

Hainbat urte, izapide eta prozesu judizialen ostean, Elorrioko Udalak Pulla Azkarreta plan partziala onartu du. EH Bilduren eta EAJren aldeko botoekin onartu da planari hasiera ematea. Udalaren arabera, SPRI-LUR promotoreak beharrezko dokumentazioa aurkeztuta, udala "derrigortua dago espedienteaz izapidetzeraz". Udalaren arabera, 2011tik indarrean dagoen HAPOak "berrikuntzarako industrialde" gisa kalifikatzen du Pulla Azkarreta auzoko eremu bat, eta ondorioz, plan partzialaren bidez "garatu daiteke". Elkarrekin Podemosek, osteraz, aurka bozkatu zuen. "Garrantzia handiko gaia da herritarrentzako, eta, beraz, tratatara politiko zabalagoa eta parte-hartzaileagoa eman behar zaiola uste dugu", azaldu dute alderdi moretik.

Behin Aldizkari Ofizialean aurkeztuta, alegazioak aurkezteko epea irekiko da. Udalak 45 lane-



Pulla Azkarretako irudikapena eta aireko ikuspegia. SPRI-LUR

guneko epea emango du, horrek ere eztabaida sortu duen arren. Elorrioko Auzo Koordinakundearen arabera, "legearen arabera", 45 eguneko epea gutxienezkoa da; eskaera aurkeztu dute udalean, 45 egun horiei 22 egun eta erdi gehiago gehitzeko, eta abuztuko

egunak baliogabeak izateko. "Ez gaude ados ez udalaren formekin, ez edukiagaz. Plan Partzialaren onarpena data hauetan egitea asmo txarrez egin duela iruditzen zaigu, oharkabean pasatzeko asmoagaz egin dutelakoan", azaldu dute.



Liburutegiko erabiltzaile bat.

Erronka beteta, hurrengo ikasturteari ekiteko gogoz

Hiru urtetik gorako irakurle guztientzako jarduerak eskainita, erronka bete du Elorrioko liburutegiak

A. M. ELORRIO

Elorrioko liburutegiak erronka ezarri zion bere buruari ikasturte hasieran: hiru urtetik gorako irakurle guztientzako jarduerak antolatzea. Amaierara iritsita, balorazio baikorra egin dute. 'Trakur-jolas', 'Berba Parranda' eta 'Neu ere liburuzain' programak eskaini dizkiete 3 eta 12 urte bitarteko umeei; horrez gain, 'Hitzak irudietan, irudiak hitzetan' sormen laborategian aritu dira 12 urtetik gorakoak. Bestalde, 16 urtetik gorakoentzako irakurle klubak "klasiko" bilakatu direla azaldu dute. "Aurten, izen-emate markak

hautsi ditugu, euskarazko eta gaztelaniazko taldeetan 18na lagun batuta", nabarmendu dute. Bestalde, Joseph Riopelle elorriarrak English Reading Cluba antolatu du. Erakusgela bezala ere funtzionatu du liburutegiak, 'Harria eta taladrina' edota 'Liburuaren Arbola' erakusketekin. Guztira, 3.427 bazkide ditu liburutegiak, eta horien herenak, 1.100 inguruk, gutxienez liburu bat mailegatu du ikasturtean zehar. "Goranzko joera nabaritu dugu, liburutegi sareak eskaintzen duen aukera digitala ere kontuan hartuta", ondorioztatu dute.

Lang eta Artabe irabazle XXVII. Enrike Renteria lehiaketan

Eguraldi ona lagun, Enrique Renteria Zornotzako margo lehiaketa arrakastatsua izan da beste urte batez



Lehiaketako parte hartzaileetako bat. ZORNOZA ELKARTE ARTISTIKOA

A. M. ZORNOTZA

Enrike Renteria pintura lehiaketaren XXVII. edizioak baditu irabazleak. Kaleko lehiaketan, Juan Carlos Lang bilbotarra izan zen irabazlea; beragaz batera, Carlos Espiga, Maria Jose Escuder eta Lucio Fernandez de Miguel saritu zituzten. Uztailaren 6an egindako saioan, hamabost lagunek parte hartu zuten, eta Zornoza elkarte artistikoaren arabera, kanpotik etorritakoak ere egon ziren. Bestalde, 'Zintzilik' atalean, Esther Diana Artabe, Aurora Campillo Villar eta Larrea eskolako ikasleek egindako lanak saritu zituzte. Alex Gabriel Lebuñ zornotzarrak jaso zuen akzesita.

Aurreko edizioetan saritutako lanak ikusgai daude Zelaieta zentroan uztailean zehar; orain arte saldutakoekin, 920 euro batu ditu Zornoza elkarteak AIDA Erentzat.

Berrizko Udalak V. Berdintasun plana onartu du, aho batez

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana 2030era arte egongo da indarrean, eta lau ardatz ditu

A. M. BERRIZ

Berrizko Udalak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana aho batez onartu du. 2030era arte egongo da indarrean, eta Emakundek duen planagaz bat egiten duela nabarmendu du udalak. Horrez gainera, eragile politiko, tekniko eta kolektibo sozial eta feministekin hamazazpi topaketa egin dituztela azpimarratu du. "Planak lau ardatz ditu: gobernu ona; emakumeen eta nesken ahalduzko, ikuspegi feministaren bidez; eredu justu, berdintasuneko eta iraun-

korrean oinarritzen den gizarte antolaketa, eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak", zehaztu du udalak. "Guztira, 32 helburu espezifiko eta 109 ekintza garatuko dira ondorengo sei urteetan".

Planak, horiek martxan jartzeko, eta jarraipen eta ebaluazioa egiteko kudeaketa-sistemak ere jasotzen ditu. Berdintasun zerbitzuaz gainera, herritarren mahaia ere sortuko dute, Berrizko Gizarte Ongizate, Berdintasun, Immigrazio eta Lankidetzarako Udal Kontseiluak.

OSASUN GIDA

**Podologia**
PSE: 214/06



OINEN ZAINZA ETA TRATAMENDUA
IBILKERAREN AZTERKETA BIOMEKANIKOA
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILAK

Herriko Gudarien kalea, 10 BEHEA
DURANGO, Tel./Faxa: 946 215 404

**Odontologia**
PSE: 26/22



HORTZ-KLINIKA
Konfiantzazko hortz klinika Durango

DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA,
HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA
ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR
DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.

Ordutegia:
Asteleroetik ostiralera: 10:00 – 14:00 | 16:00 – 20:00
Larunbata: hitzordua hartuta

944 14 80 36 | 626 18 30 30
Askatasun etorbidea 15, 48200 Durango, Bizkaia
www.clinicadentalviteri.com

**Odontologia**
PSE: 145/13



clínicadentalhortzclinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA •
INPLANTOLOGIA • KIRURGIA •
ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA
IKUSEZINA • ODONTOPEDIATRIA • PADI •
HORTZETAKO ESTETIKA • HORTZETAKO
ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

(Muruetatorre, 2C blokea, behea -
48200 Durango)
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

**Fisioterapia**
PSE: 119/13



ZAINDUZ
Fisioterapia • Osteopatia

Pilateseko klaseak eskaintzen ditugu.
Salo pertsonalizatuak dira,
talde txikietan.

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO
944 657 132 - 686 906 374

**Fisioterapia**
PSE: 57/16



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO
pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

**Naturopatia eta Homeopatia**

Aurora Julia

HOMEOPATIA • NATUROPATIA
OSASUN INTEGRALA

Umeak - Helduak - Nagusiak

Ordua hartzeko:
946 204 218
Txanporta Plaza, behea - Abadiño
www.aurorahomeopata.eus



**Psikologia**



Hezkuntza zailtasunak

Hezkuntza zailtasunen
diagnostikoa eta esku-hartzea,
diskalkulian adituak.

613 038 933
Andra Mari, 16 1D Durango

**Psikologia**



Psikologia

Helduak-nerabeak-haurrak

- Zure buruan konfidantza sendotzeko •
- Estresa kudeatzeko •
- Zure harremanak hobetzeko •

ONLINE ETA AURREZ-AURRE

613 05 38 62
Andra Mari, 16 1D Durango

**Optometria**
PSE: 162/13

NAIA ZABALA
AUZMENDI
11567 kol. zk.



keinu
OPTOMETRIA ZENTROA

- JOKABIDE OPTOMETRIA • HAURREN IKUSMENA
- IKUSMENAREN ENTRENAMENDUA • JATORRIZKO ERREFLEXUAK • FOTOTERAPIA OPTOMETRIKOA
- SENA ENTZUMENAREN ESTIMULAZIOA • KIROR IKUSMENA • GARUNEKO LESIOAK • UKIPEN LENTEAK
- ORTO-K ETA MIOPIAREN KONTROLA

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 946 225 099
www.keinuoptometriazentroa.com

J.Derteano ATXONDO

Taberna txukundu, hornitzai-leekin negoziatu... Egun batzuk dena behar moduan prestatzen eman ostean, Julia Mititelu elorriarrak gaur zabaldu du Apatako igerilekuko taberna. Oraingo hau da bere proiektu propioa gidatuko duen lehenengo aldia eta ilusio berezia egiten dio.

Ostalaritzan urteetako esperientzia duzu, ezta?

Bai. Bartzelonan bizi ostean, azken bederatzi urteak Elorriion daramatzat eta hemen nagonetik ostalaritza sektoreko hainbat lanetan aritu naiz. Mundu honetako giroa asko gustatzen zait eta arlo honetan lanean jarraitu gura nuke. Gainera, urteotan asko ikasi dut eta batutako esperientzia oso baliagarria izango zait igerilekuko tabernan. Egia esanda, hauxe da nire proiektu propioa gidatuko duen lehenengo aldia edo neure kabuz arituko naizen aurreneko biderra. Erronka bat da, baina ilusio berezia egiten dit. Ahalik zerbitzu onena eskaintzeko gogotsu nago.

Zabalik dago taberna. Zer eskainiko duzu?



Julia Mititelu Apatako igerilekuko tabernan.

"Tabernak sormenerako aukera eskaintzen dit"

Gaurtik aurrera, igerilekuez gainera, bertako tabernaz ere gozatu daiteke Apatan. Ostalaritzan urteetako esperientzia duen Julia Mititeluk hartu du negozioaren ardura, eta gaur ireki du. Ahalik eta zerbitzu onena eskaintzeko "gogotsu" dagoela adierazi du

Hasieran kafea, freskagarriak, izozkiak, gozokiak, snack-ak, opilak, pintxoak eta wrapak eskainiko ditut. Aurrera begira eskaintza handitu gura nuke errazioak eta bazkariak emanda. Umeak, nagusiak... adin guztietarako eskaintza ematen saiatuko naiz.

Iaz tabernako azpiegitura berritu zuten. Zer deritzozu?

Taberna bisitatu nuen lehenengo egunetik bertatik asko gustatzen zait. Badakit berrikuntzak egin dituztela eta, egia esanda, azpiegitura oso ondo dago. Gainera, sormena lantzeko aukera eskaintzen dit.

Zer ordutegi izango du?

Igerilekuko ordutegi berdina izango du: 11:00etatik 20:00etara. Asteko egun denetan egongo da zabalik.

**"AUERRERA
BEGIRA ESKAINTZA
HANDITU NAHI NUKE
ERRAZIOAK ETA
BAZKARIAK EMANDA"**

"Kartel koloretsuagaz jai giroa islatu gura nuen"

Natxo Condek hirugarren biderrez irabazi du Izurtzako kartel lehiaketa. Hedabide batean ikusitako jaietako txupinazoaren argazkian inspiratu da diseinurako. Aurten Abadiñoako San Trokaz jaietako lehiaketa ere irabazi du bertan bizi den gernikarrak

J.D. IZURTZA

Natxo Conde lankide batek animatuta aurkeztu zen lehenengoz Izurtzako kartel lehiaketara eta harrezkero, hiru bider irabazi du: 2022an, 2024an eta 2025ean. Hedabide batean ikusi zuen Izurtzako txupinazoaren argazkia izan du inspirazio iturri aurtengo kartela diseinatzeko. Iazkoagaz alderatuta, nahiko diferentea da. Kolore gehiago du aurtengoak. "Kartel koloretsuagaz jai giroa islatu gura nuen", adierazi du. Kolore sorta zabalak aniztasunari ere egiten dio erreferentzia, adin guztietako jendea ikusten delako kartelean, plaza inguruan dantzan.

San Trokazetan garaile

Aurten Abadiñoako San Trokaz jaietako kartel lehiaketa ere

irabazi du Condek. Lehiaketa hori irabazten duen hirugarren aldia da.



Natxo Conde Izurtzako plazan kartel irabazlearekin.

Et Incarnatus eta gonbidatu asko, Angurretako kontzertuan

Urmuga ekimenaren barruan prestatutako emanaldia datorren asteko martitzen arratsaldean izango da

J.D. MAÑARIA

Datorren asteko martitzenean, Urmuga ekimenak geldialdia egingo du Mañariako Angurreta arte espazioan. Osagai askok osatutako kontzertuagaz gozatzeko aukera egongo da bertan. Et Incarnatus orkestragaz batera, Pirata, Hatxe, Leturia eta Irati Arcelus, Eñaut Elorrieta, Janus Lester eta Xak taldea ari tuko dira emanaldi berezi horretan. Kontzertua arratsaldeko 18:30ean hasiko da eta sarrerak www.urmuga.eus webgunearen bidez eskuratu daitezke 20 eurotan.

"Bizkaiko urteko kontzerturik bereziena da. Ez da izango handiena, baina kokapen honen berezitasuna duenik ere ez dago", adierazi zuen Migel Zeberio musikariak kontzertua aurkezteko harrobian bertan eskaintako prentsaurrekoan.



Et Incarnatus taldea. URMUGA

Bisita gidatuak

Uztailen Angurreta arte espazioa bertatik bertara ezagutzeko aukera gehiago ere egongo dira bisita gidatuen bidez. Uztailaren 12, 13, 19, 20, 26 eta 27an antolatu dituzte bisitok, kudeatzaileen esanetan.



BIDALI ZURE
ARGAZKIA
688 635 041
ZENBAKIRA EDO
WEBGUNERA

UDAKO

ARGAZKI LEHIAKETA

2 KATEGORIA, 4 SARI

DURANGALDEKO
ARGAZKIRIK
ONENA

EPAIMAIAREN SARIA
smartbox bat

PUBLIKOAREN SARIA
Garaiko landetxean egonaldi bat

DURANGALDETIK
KANPOKO ARGAZKIRIK
ONENA

EPAIMAIAREN SARIA
Databostek emandako aurikularrak

PUBLIKOAREN SARIA
Euskal Produktuz osatutako otzara

**anboto
kide**

Anbotokideen
txokoa

**UZTAILEKO
ZOSKETAK**



Xiberu tabernan
bi gosari bikoitz.
Zornotza.



Aukan izozkiak.
6 izozki edo etxera
eramateko 1/2
litroko 2 tarrina.
Durango.



Basa take away
jatetxeko bowl
osasuntsu berri bat
opari, gozo jateko
zure burua zainduz.



Urkiola Hotela,
egonaldia
eta gosaria
2 pertsonentzako.

Okm:
batzen gaituen
distantzia

*Zozketa hauetan parte hartzeko
eman izena gure webgunean.

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Aparkalekuen arazoagaz amaitzeko, 70 aparkaleku berri

Muntsaratzeko aparkaleku arazoa konpondu gura du udalak. Horretarako 28.834 euro bideratu ditu



Arlozabal kalea norabide bakarreko bihurtu dute. ABADIÑOKO UDALA

M.Z. ABADIÑO

Abadiñoako Udalak Muntsaratzeko 70 aparkaleku berri egiteko lanak amaitu ditu. Lan horien bitartez, aparkalekuen problematikari konponbidea eman gura diotela jakitera eman du udalak. "Udale-rriko mugikortasuna eta aparkalekuen arazoa dira udal taldearen lehentasunetako batzuk. Bide horretan, hobekuntzak egiten ari gara Traña-Matienan, Zelaietan eta Muntsaratzeko. Apurka-apurka gure herriko mugikortasuna hobetzen ari gara, irisgarriagoa eta seguruagoa izan dadin", adierazi du Mikel Urrutia alkateak.

Plaza gehien Arlozabal, Amardresolo eta Olalde kaleetan jarri dira. Izan ere, aparkatzea errazteko eta segurtasuna hobetzeko, kale horiek ibilgailuentzako norabide bakarrekoak bihurtu dituzte.

Udalak egindako inkestaren notiziak zeresana piztu du

Gizakerrek egindako inkestaren berri eman dute. EH Bilduk udalak kaleratutako notiziari zenbait zehaztapen egin dizkio

M.Z. MALLABIA

Mallabiko Udalak herritarren iritzia jasotzeko egin berri duen inkestaren emaitzak aurkeztu zituen prentsa-ohar bidez. Bertan jakitera eman zutenenez, emaitzek balorazio "oso posi-

tiboa" erakusten dute: 10etik 7,97ko puntuazioa jaso du udalerriak eta inkestatutako gehienek Mallabia bizitzeko leku bikaina dela uste dute. Bestalde, Igor Agirre alkateak ere balorazio ona jaso duela azal-

du zuten, 10etik 7,29 punturakin.

EH Bilduren kritika

EH Bilduk ohar horren inguruko zenbait zehaztapen egin ditu. "Ez dira inkestaren emaitza guztiak argitaratu, gutxi batzuk besterik ez. Horrek, EAJren interes alderdikoia islatzen du. Gainera, alkateak 10etik 7,29 puntu jaso dituela dioen datua ez da zuzena, 7,08ko puntuazioa jaso baitu" azaldu dute oposizioak kideek.

Jubilatuen Etxeko taberna lehiaketara atera dute Mallabian

Jubilatuen Etxeko taberna, atezaintza eta garbiketaren zerbitzua jasotzen dira bertan. Bost urterako kontratua da



Mallabiko argazki orokorra. MALLABIKO UDALA

M.Z. MALLABIA

Mallabiko Udalak lizitaziora atera du jubilatuen etxeko tabernaren kudeaketa. Bost urterako kontratua izango da. "Adinekoen-tzat topagune garrantzitsua da espazio hau, eta funtsezko egin-kizuna du haien ongizatea eta bizitza aktiboa sustatzen", azaldu du ohar bidez Mallabiko Udalak. Emakida-kontratuak Erretiratuaren Etxearen funtzionamendu egokirako funtsezkoak diren hainbat zerbitzu jasotzen ditu: tabernaren zerbitzua, atezaintza eta instalazioen garbiketaren zerbitzuaren ordutegiari dagokionez, lanegunetan, gehienez 10:00etatik 22:00etara egongo da zabalik. Asteburuetan eta jai bezperetan, itxiera ordutegia 00:00ak arte luzatuko da. Udan (ekaina, uztaila eta abuztua), lanegunetan, itxiera ordutegia 23:00ak arte luzatuko da.

Otxandioko 80 etxe lotuko dira Orekaren instalazio fotovoltaikora

Oreka energia berriztagarrien komunitatearen lehen instalazioak 120 kilowatioko biltegitratze-gaitasuna du

A.Basauri OTXANDIO

Oreka Otxandioko energia berriztagarrien komunitatearen lehenengo instalazio fotovoltaikoa jartzeko lanak datozen asteotan amaituko dituzte, eta hori legeztatze prozesua irailean abiatuko dute. 2026an erabiltzen hasteko aukera izango dutela aurreikusi dute, Aritz Otxandiano Orekaren Kontseilu Errektoreko presidenteak azaldu duenez. Otxandioko 80 etxebizitza konektatuko dira Mainondo eskolaren eta frontoiaren teilatuan ipiniko duten instalazio

fotovoltaikora; 120 kilowatioko biltegitratze-gaitasuna du.

Instalazioak 220.000 euroko inbertsioa eskatu du, eta horri aurre egiteko kapital ekarpenak egin dituzte Orekako bazkideek —850 euro kilowatioko—. Horrez gainera, 25.000 eurora arteko borondatezko ekarpenak egin dituzte Kontseilu Errektoreko kideek. Otxandianok azaldu duenez, Koop57 kooperatibagaz 118.000 euroko kreditua adosten dihardue gainontzekoa ordaintzeko. "Behin lanak amaituta, Euskal Energiaren Erakundetik

emandako 137.000 euroko diru-laguntzagaz bueltatuko dira kreditua eta borondatezko ekarpenak", gaineratu du.

"Oso pozik gaude erantzunagaz. Instalaziora 80 etxe konektatuko dira, baina, ia 100 bazkide gara, ekimenean laguntzeko bazkide-tutakoak kontuan hartuta. 1.300 biztanleko herriarentzat kopuru polita da", dio Otxandianok. Beste 20 etxerentzako gaitasuna du instalazioak, eta jende gehiago animatzea aurreikusi dute.

"INSTALAZIO LANAK UZTAILEAN AMAITUKO DIRA ETA LEGEZTATZE-PROZESUA IRAILEAN HASIKO DUTE"



Mainondo eskolaren eta frontoiaren teilatuan jarri dute instalazioa. OREKA

Adinekoen etxeetan 72 ke-detektagailu ipini dituzte Otxandion

A.B. OTXANDIO

Otxandioko Udalak 80 urtetik gorako herritarren etxebizitzetan ke-detektagailuak ipini ditu adineko pertsonen ingurune fisiko eta soziala hobetzeko. Pertsona Nagusien Udal Behatokia programaren barruan instalatu dituzte, 61 etxebizitzatan; guztira, 72 gailu. Ke-detektagailu bakararra ipini dute 52 etxebizitzatan; bi, zortzi bizilekutan, eta, lau etxe batean.

Suteen prebentziorako arriskuen balorazioa ere egin dute etxebizitza horietan. Larrialdi egoeran ebakuazioa errazteko krokisa eta gizarte-txostena landu dituzte. Udalak 10.000 euro bideratu ditu horretarako.

Iurretan 1.400 etxebizitzatik gora eraikitzea aurreikusi dute

Iurretako Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak lehen onospena jaso du, EAJren aldeko botoekin

A.Basauri IURRETA

Hasierako onarpenera eman dio Udalak Hiri Antolamendutako Plan Orokorriari (HAPO). Oskar Koka alkateak nabarmendu duenez, "Iurretak herri gisa dituen egungo eta etorkizuneko erronkei behar bezala heltzea ahalbidetuko du". Gaineratu du, Iurreta modu "iraunkor" eta "orekatuan" hazteko aukera emango duela: "Eraikuntza- eta hiri-ekipamenduak hobetzeko, eta espazio libreak zein ondarearen eta paisaia naturalaren kontserbazioa hobetzeko irizpideak



Zaga enpresaren irudia.

nagusitu dira. Garapen orekatu eta iraunkorra aldatuko ez duten industria-lurzoruen beharra ere hartu da kontuan".

HAPO berriak Bidebarrieta eta Maspe kaleetan, 1.028 etxebizitza inguru eraikitzeke aukera aurreikusten du; tartean, babeseko eta prezio tasatuko 42, Zaga enpresa dagoen tokian. Bestalde, Paduretan, 305 etxe eraikiko dira —61 prezio tasatukoak—, eta, Bideondon 87, prezio tasatudunak barne.

EH Bildu eta PSE-EE abstentitu egin ziren eta ekarpenak egingo dituzte. "HAPOa ez zaigu gustatzen eta ekarpenak adosteko aukera izatea espero dugu", zioen EH Bilduko Ziortza Duñabeitiak. Julen Calleja sozialistaren ustez, "etxeetarako eta Arriandiko industrigunea garatzeko lurrak jasotzera mugatzen da".

Garaiko nagusien mokadua egunean, ikasturtea amaitzeko

E.H. GARAI

Uda betean sartu aurretik eta oporraldiari ekin baino lehen, Garaiko nagusiek ikasturteari amaiera emateko hitzordua antolatu dute. Eguenean, uztailak 17, mokadutxoia egingo dute Otea-Loran elkartean. Arratsaldeko 17:00etatik aurrera, kideak elkarrekin batuko dira berriketan egin eta briskan jokatu bitartean pintxoak dastatzeko. Irail aldean berrekingo diete ekintzei, oporraldia amaituta. Nagusien elkar-teak ondo merezitako deskantsua hartuko du modu horretan, ikasturte emankorra izan dute-eta honakoa. Ugari izan dira antolatuturiko txangoak, irteerak eta ekitaldi kulturalak.

PABILIOIA SALGAI
Iurretan, Mercadona ondoan

1.190m²

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Tel: 94.681.66.73
Mug: 649 40 26 23
zarateylexpe.com

Mendiolan jai giroa nagusi

Eguaztenean Donien Atxa jarrita eman zioten hasiera Mendiolako San Kristobal jai. Gaur, esate-rako, parrillada egongo da, DJ Kool-ek girotuta, eta ostean, Inda-be, Rebel Noise eta Nevadah taldeen kontzertuak. Zapatuan, berriz, Maleta siku, Asier Kidam magoa, tortilla txapelketa eta Luhartz taldeagaz erromeria egongo dira. Jaietara amaiera domekan emango diote.



DURANGALDEA ASTEON

Bederatzi talde ariko dira irailaren 20ko Koba Live

ABADIÑO Laugarren urtez, maila altuko metal eta rock taldeak el-kartuko dira Koba Live jaialdian, Abadiñon. Irailaren 20an Traña-Matienako eskoletan egingo duten jaialdian bederatzi talde ariko dira. Hauek izango dira: Onslaught, Eclipse, Wolfheart, Suicidal Angels, Before the Dawn, Ehun Kilo, The Electricalley, Asgarth eta Moonshinersds. Sarrerak dagoeneko eros daitezke koba-live.com webgunearen bitartez.



Giro dantzagarria salsa eta mojito jardunaldian

GARAI Barikuan, salsa eta mojito jardunaldia egin zuten Garain, Trumoitte kultur elkartearen eskutik. Hainbat izan ziren dantza-ra bezainbeste mojitoak dastatzera hurreratutako herritarrek. Antolatzaileak pozik daude ekitaldiak izandako harreragaz: "Hitzordura jende ugari gerturatu zen, eta askok parte hartu zuten dantzan. Gustora egon ginen, gau-giroa lagun izan genuen-eta".



Berrizko San Kristobal Txikiko jaiak domekan

BERRIZ Uztailaren 13an, domeka, Berrizko San Kristobal Txiki er-mitan jaiak ospatuko dituzte. Egunari hasiera 11:00etan emango diote mezagaz; ostean, salda eta pintxoak egongo dira bertaratzen direnentzat. 12:30ean Ireminhe Dantza Taldearen saioa egongo da. Eta eguerditik aurrera, igel txapelketa, umeentzako jolasak eta bolo-txapelketa egongo dira, besteak beste.

GUTUNAK

Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9 - lurreta
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:

• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia
Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



POLITIKAN
JESICA RUIZ
PSE-EE

Pertsonak proiektu ororen erdigunean

Bi urte igaro dira Durangoko gobernuan sartu ginenetik, eta azken urte honetan PSE-EEK bu-rututako ekintza sendoak nabar-mendu nahi ditugu. Kudeatzen ditugun arlo guztietan pertsonak dira erdigune. Hona hemen adi-bide batzuk:

Berdintasuna: Indarkeria Uni-tatearen finkapena, ikastetxeeta-ko formakuntzak, Andragunearen irisgarritasuna hobetzea edo jaietarako protokolo berria ezar-tzea.

Adinekoak: jarduerak auzoeta-ra zabaltzea; nahi gabeko bakar-dadeari aurre egiteko Kafelagun zerbitzua abian jartzea.

Gizarte-kohesioa: elkarreentza-ko laguntzak handitzea edo Ahol-ku Sarearen zerbitzua hobetzea.

Haurrak eta gazteak: lehen al-diz udalekuak egingo dira irailean; sexu-aholkularitza zerbitzu berria martxan jarri da eta gazteentza-ko proposamena egin da jaieta-rako.

Merkataritza: % 20 handitu ditugu ekintzailetzarako laguntzak; saltokientzako prestakuntza-saioak egin ditugu eta komertzioen errol-da abian jarri dugu.

Hirigintzari dagokionez, gure lehentasunak dira San Inazio parkea estaltzea, Tabirako alda-gelak, Antso Estegizko bigarren fasea, Kapitanena zentro-zibikoa eta San Faustoko 16 etxebizitza sozialak betetzea.

Argi dugu ekintza txikiekin gure bizilagunen bizitza hobetzen dela, eta horretan jarraituko dugu lanean.



Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 lurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.





Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

LAGUNTZAILEAK



KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLITICA LINGÜISTICA

OTXANDIOKO JAIAK 2025



OTXANDIO

2025

SANTAMAÑAK

UZTAILAK 12, 17, 18, 19, 20, 26 eta... 27



OTXANDIOKO JAIK 2025

UZTAILAK 12

GAZTE EGUNA

13:00 Txupinazoa Gaztetxean.

15:00 Bazkaria.

18:00 Olinpiadak.

22:00 Kontzertuak Gaztetxean:
Lukiek
Mirotz
DJ YIYI

UZTAILAK 17

15:00 Herri bazkaria.

18:00 Meza Santua.

18:30 Ohiko Salve Regina
abestuko da Oihandi
abetesatzagaz batera.

18:55 Soinubil eta txistulariekin
batera "Gora Otxandioarrak"
abestia.

19:00 Tanborradan
antolakuntzan urteetan ibili
direnak botako dute txupina.
Jarraian danborrada.

20:00 Otxandioko presoen
eskubideen aldeko
elkarretaratzea plazan. Giza
Eskubideen Udal Batzordeak
deiturik.

20:30 Eusko Label haragi
pintxoak.

22:30 Erromeria Joselu Anaiak
taldeagaz.

UZTAILAK 18

SANTAMAÑA

11:30 UDAL MUSIKA BANDAREN
kalejira.

12:30 Meza nagusia Santa
Marinaren omenez.

13:00 Herriko umeen pelota
partiduak. Illuntxo pilota
elkartearen eskutik.

13:30 "Kaleik kale" txistularien
kalejira.

14:00 Mutrikuko Buruhaundiak
eta Erraldoiak. Otxandio eta
Bizkaiko gaiteruekin batera
kalejira.

19:00 URDURI dantza taldearen
ikuskitzuna.

20:00 TABERNA IBILTARIA
musika taldea.

22:30 JOTAKE taldearen
erromeria.

UZTAILAK 19

UMEEN EGUNA

12:00 6. mailakoek eguneko
txupina botako dute udaletxeko
balkoitik.

12:05 Puzgarriak eta egurrezko
"Kalaka" jolasak.

12:30 Arimen meza.

13:00 II. Sukaldaritza Erronka.

15:00 Bazkaria. Ondoren,
izozkia.

17:00 OTXANDIOKO
I. PENTATLOIA

19:00 Akelarre Txaranga.

19:30 Esku pilota partiduak:
Peña II - Gabirondo / Salaberria
- Aranguren. Ezkurdia - Iztueta
/ Artola - Martija

22:00 Kuadrillen arteko Play-
backa.

22:30 Alkoholaren arriskuak
prebenitzeko eta murrizteko
karpa. Antolatzailea: Durangaldeko
Mankomunitateko Adikzioen
Prebentziorako Zerbitzua.

00:00 Altza Porru! erromeria.

UZTAILAK 20

13:30 Kale kantu: Soinubil eta
Bakioko Txerokiak.

15:00 Herri bazkaria.

17:00 Tute, mus eta briska
txapelketa.

UZTAILAK 22

SOKA DANTZA

20:00 VIII. Nesken Soka
Dantza herriko plazan.

UZTAILAK 25

ESKU PILOTA

19:30 Herriko umeen pilota
partiduak. ILLUNTZO PILOTA
ELKARTEAREN ESKUTIK,
ONDOREN: IV. Otxandioko goxua
txapelketaren finala "JOSETXU,

MOTXILE eta KAITOren OMENEZ"

UZTAILAK 26

SAN MARTIN EGUNA

12:00 Otxandioko bandaren
kalejira.

12:15 Otxandioko Urbiribil
dultzainero taldearen kalejira.

12:30 Meza San Martineko
Baselizan.

14:00 San Martinen paella-
txapelketa. Mahai eta aulkien
erreserba egiteko: uztailak 23,
8:00-14:00 artean, udaletxean
bertan.

19:30 SAMA SIKU txaranga.

23:00 Kontzertuak herriko
plazan:
Exaixu
The Clayton
Tatta eta Denso
Xauna Xauk

UZTAILAK 27

AGUR SANTAMAÑAK

07:30 Diana eta kalejira.

08:00 Sokamuturra.

12:00 Meza Santua.

13:00 Omenaldia 1936ko
bonbardaketan hildakoei,
Andikonan.

13:45 Limonada plazan.

14:00 Araiako udal bandaren
kontzertua.

18:00 Herri-kirol ekitaldia
plazan.

21:00 GAU ARG! erromeria.

00:00 Agur Santamañak.



UZTAILAK 17 Txupinazoa
Danborradaren antolatzaileek
jaurtiko dute
Ondoren, danborrada
Plaza nagusian, 19:00etan

ABEL PINTURAK

Abel Axpe Acera
Elizondo Plaza, 5
ARRAZOLA - ATXONDO
658 721 845

Tel.: 633 468 947 / www.hontzaextrem.com

AXPE ESTANKOA

Okindegia
Loteria eta tabakoa

Plaza nagusia, 7
OTXANDIO
945 461 442

OTXANDIO IGERILEKUETAKO TABERNA



Mainondo auzoa, 2
Otxandio
682 89 42 74



The Clayton talde aramioarrak kontzertua eskainiko du, uztailaren 26an . THE CLAYTON ROCK BAND

Jai giroan murgiltzeko prest daude Otxandion

Biharko Gazte Egunagaz santamañetarako motorrak berotuko dituzte Otxandion. Hiru asteburu iraungo duten jaiak dituzte aurretik otxandiarrek, eta aurten indarberritu duten Jai Batzordeak askotariko ekitaldiek osatutako egitaraua borobildu du

A.B. OTXANDIO

Badatoz ate joka santamañak. Jai giroan murgiltzeko egun luzeak dituzte aurretik Otxandion. Izan ere, herriko elkarte eta eragileen parte-hartzeagaz indarberritutako Jai Batzordeak askotariko ekitaldiekin osatutako egitaraua borobildu du, aurten hiru asteburu iraungo duten jaiak gozatzeko.

Udaletzeko balkoitik jaurtiriko txupinagaz batera lehertuko da jai giroa herriko kale eta bazterretan, uztailaren 17an. Hala ere, aurretik motorrak berotzen hasteko aukera izango dute: Gazte Eguna ospatuko dute Gazte-txean, bihar. Herriko gazteek eguerdian jaurtitako txupinagaz hasiko dute eguna. Bazkaltzeko elkartuko dira eguerdian, eta, olinpiadak hasiko dituzte, 18:00etan. Gauean, eguna borobiltzeko, Lukiek eta Mirotz musika taldeek joko dute, Gaztetxean. Ondoren, Dj Yiyik jarriko du musika.

Tradizio handiko ekitaldiek ez dute hutsik egingo aurten ere santamañetan. Besteak beste, herriko Urduri dantza taldearen saioa, Oihandi abesbatzak abes-

turiko Salve Regina, umeentzako jolasak eta puzgarriak, kuadrillen arteko play-backa, herriko bandaren kalejira, nesken sokadantza, eta San Martineko paella txapelketa izango dituzte hurrengo egunetan. Baita sokamuturra eta 1936ko bonbardaketan hildakoak gogoratzeko omenaldia ere. Nobedademoduan, aurten, Otxandio I. Pentatloia egingo dute.

Musika eta kirola

Uztailaren 26an, rock doinuak nagusituko dira Otxandion. The Clayton, Xaukena Xauk, Esaixu, eta, Tatta eta Denso taldeak eskainiko dute kontzertua. Hala ere, erromeri doinuak alaitutako gauak ere ekarriko dituzte santamañak. Joselu Anaiak, Jotake eta Gauargi taldeek osatuko dute musika eskaintza.

Herri kirolen erakustaldiaz eta goi mailako pilotari profesionalen arteko esku pilota partiduez gozatzeko aukera ere egongo da, ohiko Agur Santa Marina abestuz jaiak agurtu bitartean. Jaiak iraun bitartean eraso sexistei aurre egiteko protokoloa aktibatuta egongo da, Jai Batzordeko kideek azaldu dutenez.



LOREZAINZA - ZERBITZUAK - INGURUMENA
Soropil artifiziala hornitzea eta instalatzea
Tel.: 610 400 414 / 607 412 773



AMENABAR S.A. | Otxandio- Olaeta Errepidea z/g
01165 - Olaeta (Araba) Tel. +34 945 450 050
comercial@amenabar.net
www.amenabar.net

ZUHAITZ ETXEA
JATETXEA

Artekale, 32 - Otxandio
☎ 945 450 973



Urkioil gasolindegia
ibilgailuetarako
aukerarik onena.

- GLP, butanoa, kanpin-gasa.
- Kotxeak garbitzeko aukera.
- Barbakoak egiteko ikatza, izotza, platerak...

📍 BI-623, 48213 IZURTZA 📍 BI-623, 48210 OTXANDIO

danoena
taberna

Plaza nagusia, 5
OTXANDIO
Tel.: 945 450 248

"Jaietako txupinazoa botatzeko ilusioz gaude"

AMAIA IZARZUGAZA URIBELARREA DANBORRADAREN ANTOLATZAILEETARIKO BAT Azken urteetan Otxandioko Danborrada antolatzen lan egin duen herritar taldeak hartuko du santamañen txupinazoa jaurtitzeko ardura, uztailaren 17an

A. Basauri OTXANDIO

Hiru hamarkadatik gora dira danborrada berreskuratu zutela Otxandion. Amaia Izarzugaza, Leire Axpe, Sonia Lopez, Rakel Gallastegi eta Amaia Ajuriagerra dira hain errotuta dagoen ekimenaren arduradunak. Izarzugazak erantzun die ANBOTOren galderei.

Zelan hartu duzue txupinazoa botatzeko gonbidapena?

Ilusioz hartu dugu, lotsa apur bat ere ematen digun arren. Momentu hori nahiko kritikoa izaten da guretzat. Txupina bota eta segiduan hasten da danborrada, eta urduri egoten gara. Taldeak prestatzen, gaztetxoei



Amaia Izarzugaza (zutunik), Leire Axpe, Sonia Lopez eta Rakel Gallastegi.

laguntzen... ibiltzen gara. Baina, ilusioz gaude.

Zenbat urte daramatzue Otxandion danborrada antolatzen?

Jakin badakigu 70eko hamarkadan egiten zutela danborrada, eta urteetako etenaldiaren ostean, berreskuratu egin zuten. Hortaz, badira 35 urte baino gehiago. Ordudunik daramat antolakuntza taldean; lehenengo urteetan laguntzaile moduan.

Pregoi zer esango duzuen aurreratzetik baduzu?

Urte hauetan guztietan Otxandioko danborradan parte hartu duten denei eskerrak emateko aprobetxatuko dugu, batez ere. Ondo pasatzeko eta jaiak disfrutatzeke gonbita ere egingo dugu, jakina. Pregoi laburra izango da. Bestela, plazan zain dauden umeak urduri ipiniko dira, danborrada hasteko gogoz egongo dira-eta.

Zenbat lagunek parte hartzen dute?

Iaz 150 bat lagunek parte hartu zuten; eta, aurrean, 130 inguru izango dira. Gaztetxoenek 3-6 urte dituzte, eta gurasoen ardurapean joaten dira. Hortik aurrera ez dago adin mugarik. Udal Musika Bandak lagunduta egiten dugu kalejira.

Noiz hasi zenituzten entseguak? Igartzen da jai giro usaina?

Igartzen da, bai! Uztail hasieran hasten gara entseguetan. Dena den, seguru dena ondo joango dela. Gehienak errepikatzaileak dira, urtero parte hartzen dute. Bada, dagoeneko ezagutzen dituzte abestiak. *Tatiago, San Sebastian Martxa, Diana, Iria-rena eta Katalintxu* jotzen ditugu. Iaz gehitu genuen, Katalintxu, Kepa Pinedo Udal Bandako zuzendariak egokitu ondoren.

Aurtengoa berezia izango da?

Txupinazoa botatzea berezia da bai antolatzaileontzat, bai parte-hartzaileontzat. Dena den, urtero lez egingo dugu kalejira. Akaso urduriago, ardura handiagoagaz!

Santamañetako zeintzu ekitaldi nabarmenduko zenituzke? Zein izango da zure plana aurrean?

Ekitaldi bat nabarmentzea gaxa da. Jaietako giro herrikoia eta herritarren parte hartzea azpimarratuko nituzke. Txupina botata eta danborradagaz hasiko ditut jaiak. Gero, ahalik eta ekintza gehienetan parte hartzea eta lagunekin eta familiagaz disfrutatzea da nire plana.

ULMA

Munduko bazter askotan gara,
zintaren itzal finean,
hain aho desberdinetan mintzo,
roller edo polin izenean.
Baina gaur hemen gara berriro,
maite dugun Otxandion,
ez lanera, baizik eta jai,
elkartzen gaituen bidean.

GORA
OTXANDIOKO
JAIK !!

ULMA CONVEYOR
COMPONENTS
1960etik



**RUIZ DE INFANTE
ERAIKUNTZAK
eta
BIRGAITZEAK**

OTXANDIO

Tel: 670 975 722

j.a.ruizdeinfante@gmail.com



LOFENG SSHUO S.L

EIT Eraikinen Ikuskapen Teknikoak
Eraginkortasun energetikoaren ziurtagiriak
Arkitekturako eta interiorismoko
proiektuak eta erreformak
Obra-zuzendaritza

Tel.: 639 613 580 (Lorenzo Cubero)

Tel.: 620 570 294 (Sofía Sánchez)

ZORNOTZAKO JAIK 2025



**AMOREBIETA
ETXANOKO** jaiaak
UZTAILAK 15-27



ZORNOTZAKO JAIK 2025

UZTAILAK 15

20:00 Pregoia, txupinazoa eta ZORHONTZAREN kalejira. Ondalan, Bergarako BET, Txantreako, Bermeoko, Areatzako eta AmorebietaEtxanoko UDAZKEN BARRIA, eta ETXANOKo erraldoi eta buruhandien konpartsak, UDAZKEN txistulariak eta gaiteroak, Zornotzako Musika Banda eta TRIKI PIUrekin. Herriko plazan

21:00 Kaleko Musika New Tocado. Kalbario/ Euskal Herria plaza/ Harrison

21:30 Kontzertua Puro Relajo. Zelaieta parkea

22:00 Kontzertua Tatta & Denso, Merina Gris. Zubiondo

UZTAILAK 16

12:00 KARMEN EGUNEKO JAIA. Meza, bertsolariak, UDABARRI dantza taldea, eta Euskal erromeria TRIKI PIU taldeagaz. Larrea.

Ostean Herri Kirolak. Larreako landetan

11:00 Udazken taldearen kalejira. Herritik zehar

16:00 Zornotzagol. Futbol7 jaietako txapelketa (Mistoa). Larreako Futbol Zelaia

18:00 Txiki Txef. Euskal Herria plaza

18:00 Gizonezko pilota partidu profesionalak. Bakaikoa-Lizeaga vs Senar Ugartemendia. Urrutikoetxea-Iztueta vs Artola-Morgaetxebarria Ant.: Erdu Pilotan eta Lagun Onak pilota elkarteak. Urrutikoetxearen azken partida Zornotzan. Amorebieta IV frontoia

18:30 Gazteen arteko ginkana Ant.: Zornotzako Gazteak. Herriko plaza

19:00 Gaztedi Berria Fanfarria.

Sabino Arana

21:00 Bertsolariak: Gorka Pagonabarraga, Igor Elortza, Onintza Enbeita eta Miren Artetxe. Gai jartzailea: Zornotzako Eta Abar Bertso Eskola. Zelaieta parkea

22:30 Kontzertua Errobi. Zubiondo plaza

UZTAILAK 17

16:00 Zornotzagol. Futbol7 jaietako txapelketa (Mistoa) Lag.: SDAmorebieta. Larreako Futbol Zelaia

17:30 Akrobazien erakustaldia eta tailerra. Sergi Sarmiento Serflips. Herriko plaza *Euria bada Gure Kirolak frontoian.

17:30 XVI. Pala txapelketa. Herriko Txapelketaren finalak (emakumezkoak eta gizonezkoak) Ant.: Erdu Pilotan. Amorebieta IV Frontoia

19:00 Pintxopotea eta erromeria Iluntzean. Ant.: Laixie Txosna elkarteak. Zubiondo parkea

21:30 Kontzertua Heitxi. Zubiondo plaza

22:45 Porrurik Bez! Elektrotzaranga. Ant.: Laixie Txosna elkarteak. Zubiondo parkea

UZTAILAK 18

13:00 Gazteen kalejira Merhezi Taldeagaz. Ant.: Zornotzako Gazteak. Herritik zehar

15:00 Gazteen arteko bazkaria eta bazkalostean Maruxak. Ant.: Zornotzako Gazteak. Zelaieta parkea. *Euria bada Amorebieta IV frontoian

18:00 Kaleko musika Ilargi Txaranga. Ant.: Zornotzako Gazteak. Luis Urrengoetxea

20:30 Txistularien XXV. Kontzertua. Artista gonbidatua: GATIBU Ant.: Udazken txistu taldea. Zelaieta parkea

22:30 Kontzertua La Otra Oreja. Zubiondo plaza

UZTAILAK 19

10:00 Basket 3x3 Ant.: Zornotza Saskibaloi taldea. Zubiondo parkea

10:30 Marmitako lehiaketa. Herritik zehar

11:00 Umeentzako bolo txapelketa. Ant.: Club bolos Zornotza. Gure Kirolak bolatokian

12:30 ZORHONTZA ibiltaria Triki Piu eta Areatzako erraldoiekin. Herritik zehar

15:30 Karaoke ibiltaria sound. Zelaieta parkea/ Euskal Herria plaza/ Harrison parkea

16:00 Karaoke ibiltaria. Gernika plaza/Andra Mari Plaza

16:00 Disko festa ibiltaria Bayo Show. Arraibi plaza/San Juan Kalea

18:00 DJ Fardy Ant.: Gernika plazako ostalariak, Gernika plaza

21:00 Karmenetako XIII. Bolo Txapelketa. Ant.: Club bolos Zornotza. Gure Kirolak bolatokian

21:00 Kontzertua Gozategi. Erromeria Zirkini Bez. Zubiondo plaza

22:30 Orkestra En Esenzia. Zelaieta parkea

UZTAILAK 20

10:00 XLIII. Xake Txapelketa Agustín Zamakona Memoriala. Ant.: Club de ajedrez Zornotza Herriko plaza

10:00 Motorren topaketa. Ant.: Lanzero Classic. Gernika plaza

11:00 Euskal Herriko Artzai Txakurren Txapelketa. Ant.: Artxate elkarteak. Jauregibarria parkea

12:00 Arku-tiroa. Ant.: Ostadar. Jauregibarria



UZTAILAK 19 Marmitako lehiaketa
Milaka lagunek parte hartuko dute txapelketan. Herrian zehar, 10:30etik aurrera

17:00 Bizikleta Eguna. Ant.: Urgozi-iturria txirindulari elkarteak. Zubiondo parkea – Gure Kirolak

20:00 Kantakatu kantuan. Luis Urrengoetxea

22:00 Kontzertua Ameriketatik Euskal Herrira Zornotzako Musika Banda. Artista gonbidatua: Ainara Ortega. Zelaieta parkea

UZTAILAK 21

12:00 Umeentzako tailerra Perkusioa/Batukada. Zelaieta zentroa

16:00 Gazteen Arteko Piragua Jaitsiera. Ant.: Zornotzako Gazteak. Ibaizabal erreka

19:00 Mus Txapelketa. Ant.: Belatxikieta elkarteak. Zelaieta parkea

20:00 Kontzertu akustikoa Blues Boys. Ant.: Laixie txosna elkarteak. Zubiondo parkea

21:00 Kale antzerkia testurik gabe. Art Ilusio. Markeliñe. Ogenbarrena *Euria bada Gure Kirolak frontoian

21:00 Pintxada Navajita Suárez – Kimo Soundz. Ant.: Laixie txosna elkarteak. Zubiondo parkea

UZTAILAK 22

12:00 Umeentzako tailerra Perkusioa/Batukada. Zelaieta zentroa

13:00 Karropoteoa. Ant.: Laixie txosna elkarteak. Herritik zehar, Harrison kaletik abiatuta

15:00 Txosnarien bazkaria. Ondoren Larru eta Lagunak. Ant.: Laixie txosna elkarteak. Zubiondo parkea

19:00 Kale antzerkia gazteleraz. La última y nos vamos. Trapuzaharra. Herriko plaza. *Euria bada Gure Kirolak frontoian

19:00 Erromeria Begibide. DJ Pary&Tiza. Ant.: Laixie txosna elkarteak. Zubiondo parkea

UZTAILAK 23

12:00 Umeentzako tailerra Perkusioa/Batukada. Zelaieta zentroa

18:30 Priscila Reinas de Nafarroa Ant.: Nafarroa zentroko erabiltzaileak eta langileak. Zubiondo plaza

19:30 Gazteen arteko Play Back Lehiaketa Ant.: Zornotzako Gazteak. Zelaieta parkea

UZTAILAK 24

11:00-14:00 / 17:00-19:00 Puzgarriak eta joko inklusibo eta irisgarriak. Ogenbarrena. *Euria bada Gure Kirolak frontoian.

21:30 Danborrada. Ibilbidea: Txiki Otaegi, San Pedro, San Miguel, San Juan, Nafarroa, Ibaizabal, Gudari, Herriko plaza Ant.: Zornotzako Musika Banda



UZTAILAK 25

Goizean Baserritarren azoka.
Ant.: Enba. Zezilia Gallartzagaitia

10:00 Kittu Maratoia. Herri-rik zehar.

Tabernaz Taberna: **10:00** Larrea auzoa **10:40** Gudari kalea **11:00** Zelaia parkea – Harrison plaza **11:30** Ixer – San Pedro **12:15** Zezilia Gallartzagaitia **13:15** Urbano Larruzea – San Migel **13:30** Gregorio Mendibil – San Juan **14:00** San Migel – Zezilia Gallartzagaitia **14:30** Andra Mari plaza **15:15** Gernika plaza **16:15** Jauregibarra parkea **16:30** Jauregizahar **16:45** Andrandi **17:15** Arraibi plaza – San Juan **17:30** Konbenio plaza – Kalbario plaza **18:00** Sabino Arana **18:30** Zubikurtze – Zubipunte **19:00** Ogenbarrena **20:00** Txiki Otaegi – Luis Urrengoetxea

11:00-14:00 / 17:00-19:00
Puzgarriak eta joko inklusibo eta irisgarriak. Ogenbarrena
*Euria bada Gure Kirolak frontoian

12:00 Musika kalean Triki Piu.
Gernika Plaza/ Andra Mari Plaza/

Zezilia Gallartzagaitia

14:15 Aitite-Amamen jaia.
Pertsona nagusien bazkaria.
Izena emateko: Nafarroa zentroa.
Amorebieta IV frontoia

13:45 Ateen irekiera

14:15 Udabarri dantza taldea

15:00 Triki Piu

16:00 DJ Koldo

18:00 Gazteen arteko herri kirolak. Ant.: Zornotzako Gazteak.
Herriko plaza

22:15 Su artifizialak. Jauregibarra

22:45 Kontzertua Zea Mays - Vithy DJ Zubiondo plaza

22:45 Kontzertua Hola Raffaella
Zelaieta parkea

UZTAILAK 26

09:00 Plater-tiroa.
Ant.: Errekamendi. Boroa

10:00 Kotxeen Topaketak. Ant.:
Lanzerro Classic. Ogenbarrena

11:30-14:00 Txitatoki Zirkus.

Umeentzako zirku azoka ikuskizuna. Ogenbarrena. *Euria bada Gure Kirolak frontoian

16:00 Amorebieta Etxanoko VII. Duatloi Txikia. Ant.: Amorebieta Etxanoko Triatloi taldea. Zelaieta parkea

17:30 Emakumezkoen Pilota Partidu Profesionalak/ Udako Master Laboral Kutxa Torneoa. Etxegarai-Bertiz vs Salsamendi-Erasun. Zabaleta-Oses vs Ibarrola-Mendizabal. Amorebieta IV frontoia

18:00 Umeen Tanborrada. Ibilbidea: Ibaizabal, Nafarroa, San Juan, San Miguel, San Pedro, Luis Urrengoetxea, Larrabide, Karmen kalea, Herriko plaza Ant.: Zornotzako Musika Banda

22:00 Kontzertua Isabel Aaiún.
Zelaieta parkea

23:00 Kontzertua Rulo Y La Contrabanda. Zubiondo plaza

UZTAILAK 27

MOZORRO EGUNA: ZINEMA

11:00 Ontzi-Modelismoaren

erakustaldia. Ant.: Bilbo Model Club. Jauregibarra

18:00 Gazteen Txallengeko mozorro desfilea. Ant.: Zornotzako Gazteak. Zubiondo parkea - Ibaizabal kalea- Gudari kalea- San Pedro- Luis Urrengoetxea – Euskal Herria plaza

18:30 Umeentzako tailerra, perkusioa (kalejirarako). Gure kirolak

19:30 Zornotza11 Kolore eta ZORHONTZAREN agurra. Aniztasunaren kalejira. Jauregizahar - San Miguel kalea- Herriko plaza

20:00 ZORHONTZAREN AGURRA. Parte-hartzaileen erakustaldia Ant: Udazken Txistulariak, Zornotzako Musika Banda, Triki Piu, Areatzako Erraldoiak, 11Kolare, Zornotzako pentsionistak, Ongi Etorri errefuxiatuak, Juravca, ZABE, Novisi elkarteak, Sorginkada batukada feminista... Herriko plaza

20:30 Kaleko musika Burrunba Elektrotzaranga. Luis Urrengoetxea

22:00 Very Txarrak - Akerbeltz. Zelaieta parkea



**Jauregibarra
Jatetxea**

Bideaur 4, Zornotza
Tel.: 946 30 16 32
jauregibarra.com



Ekainaren 25etik
abuztuaren 31ra
udako ordutegia.
Ostegun, ostiral
eta larunbatetan
terrazako afariak



**Euskara eroso
ikasi eta bizi**

"Ondo pasa jaietan!"

Irailetik aurrera,
ikasi (aprende) euskara
Zornotzako AEK euskaltegia

San Pedro 3, behea
zornotza@aek.eus - 607 15 19 17



Gregorio Mendibil 9 behea
Amorebieta-Etxano
info@zasinformatika.com
Tel.: 94 630 12 12

**Partikular eta
enpresentzat zerbitzuak**

O₂ Baimendutako
banatzailea
KONTRATATU
GURE DENDAN



ANDRAMARI
ZORNOTZAKO IKASTOLA





ANDRAMARI ZORNOTZAKO IKASTOLA

ONDO PASA JAIETAN!!



 **Larrea Auzoa z/g- 48340 Amorebieta-Etxano**

946732950 | zornotza@ikastola.eus | www.andramarizornotzakoikastola.eus



Iñaki Kortazar (SD Amorebieta), Koldo Bilbao zinegotzia, Ainhoa Salterain alkatea eta Itxaso Iriondo (Karmengo Ama).

Zornotzarrak prest jaietan murgiltzeko

Uztailaren 15etik 27ra ospatuko dituzte Zornotzako Karmen jaiak; adin guztietako jendearentzako moduko egitaraua osatu dutela nabarmendu du Zornotzako Udalak, haur eta gazteentzako ekitaldietan ere arreta berezia ipinita

A. M. ZORNOTZA

Ate joka daude beste urte batez, Zornotzako Karmen jaiak. Aurten, hasiera berezia izango dute, SD Amorebietak eta Karmelitik ikastetxeko kideek partekatuko dutelako pregoi irakurketa; lehenek mendeurrena bete dute, bigarrenek, berriz, 75 urte. Ostean, Zorhontzak eta herriko beste pertsonaia garrantzitsuek herriko kale nagusiak zeharkatuko dituzte. Behin festa lehertuta, uztailaren 27ra arte jaietan murgilduta egongo dira zornotzarrak.

Aurten ere, jaietan tradizio diren marmitako lehiaketa, aita-amamen eguna eta beste hainbat ekitaldi egingo dituzte.

Gazteenentzako, Txikitxef eta perkusio taldeak antolatutuzte, besteak beste. Zornotzako Karmen jaietako beste ekitaldi jendetsuenetako batzuk kontzertuak izan ohi dira. Askotariko doinuak entzun ahalko dira Zubiondon edota Zelaieta parkeko guneean; Merina Gris, Bulego edota Tatta eta Densok doinu modernoagoak eskainiko dituzte, baina aukera egongo da

MERINA GRIS, BULEGO, MOCEDADES ETA ZEA MAYS TALDEEN KONTZERTUAK EGONGO DIRA

Zea Mays edo Mucedades bezalako taldeez gozatzeko ere.

Labradorren lehena

Bestalde, aurtengo jaiak lehenak izango dira Aritz Labradorrentzako Zornotzako danborradaren gidaritzan; Labrador Zornotzako Musika Bandako zuzendaria ere bada. Jou González musikariaren eskutik jaso du lekukoa, eta gogotsu dago jaietarako. "Nortasun propioa eman gura diot danborradari, Donostikoak edo Azpeitikoak duten bezala", azaldu zuen kargua hartzerakoan. Danborrada uztailaren 24an izango da, 21:30ean hasita; umeena, oster, egun bi beranduago izango da, uztailaren 26an, 18:00etatik aurrera.



Zorhontzak gidatu ohi du txupin osteko kalejira.



Zea Maysek uztailaren 25ean eskainiko du kontzertua. ZEA MAYS

BIZITZA OSORAKO IKASKUNTZA
EUSKARA
BETIKO



"Ohorea da eta poztasun handia ematen digu"

JON LARREA SD AMOREBIETAKO PRESIDENTEA

SD Amorebietako kideak udaletxeko balkoian izango dira uztailaren 15ean. Horrela, bi ospakizunek bat egingo dute: Karmen jaiek eta futbol klubeko mendeurrenak

J.D. ZORNOTZA

Herritarrek mendeurrenako ospakizuneko parte bihurtzea. Ideia horrekin antolatu dituzte orain arteko ekimen guztiak eta aurrera begira ere horixe dute helburu, Jon Larrea klubeko presidentearen esanetan. Jaietan, bazkari herrikoia egingo dute marmitako txapelketaren barruan eta atzoko eta gaurko zaleen eta jokalarien bilgune izatea gura dute.

Zelan hartu duzue txupinazoa botatzeko ardura?

Ohore handi bat da guretzako. Ohorea eta erantzukizuna ere bai. Poztasun handia ematen digu txupinazoa botatzeak eta



Jon Larrea SD Amorebietako presidentea.

jaiei ahalik eta hasiera onena ematen saiatuko gara.

Zelan joan dira mendeurrena ospatzeko orain arte antolatutako ekimenak?

Oso ondo joan dira. Ospakizuna hasteko, urtarrean, kalejira bat egin genuen herrigunetik Urri-teraino eta urteurrenako bandera igo genuen. Gerora etorri dira 100 urteko historia laburbiltzen duen erakusketa, ONCEko kupoia... Gure helburuetako bat herritarrek eta herria ospakizunaren parte bihurtzea izan da, bazkide izan zeinez, azken batean, SD Amorebieta herritik sortu baitzen. Gauzak horrela, herrian errotuta dauden hainbat ekimenetan parte hartu dugu. Zintzilik lehiaketan sari bat eman genuen, eta Haizetara lehiaketan beste bat, kirola eta kultura uztartuta.

Jaietan zer egingo duzue?

Bazkari herrikoia egingo dugu uztailaren 19an, marmitako egunaren barruan. SD Amorebieta maite dugunon ospakizun alai eta eder bat izatea gura dugu. Gero, egun berean, mendeurrenako futbol partidua egongo da. Ekimen biak bereziak dira guretzako.

Urtea amaitu bitartean zer geratzen da?

Urte amaiera aldera, dokumentala aurkeztuko dugu. Batez ere, klubaren azken 25 urteetako ibilbidea jasoko du. 75. urteurrenean liburu bat atera zen eta haren osagarria izango da. Klubaren historia osoa errebasatuko du, baina gehienbat azken 25 urteetan zentratuta.

Denboraldi berria prestatzen ere bazabiltzate eta, besteak beste, harrobiko jokalaria bi lehen taldera igo dituzue: Iker Rekagorri eta Aitor Intxausti.

Eta ez dira bakarrik izango. Lehenengo RFEF mailan ibiltzeak, beharbada, beste mota bateko fitxaketak egitera behartzen zaitu, baina orain Bigarren RFEF mailan egonda, berriro berreskuratu dezakegu harrobiko apustu hori. Harrobia gure birrikak dira eta gazteei aukerak ematea albiste pozgarria da guretzat. Eta, diodan moduan, ez dira bi bakarrik izango. Beste gazte batzuek lehen taldearekin egingo dute denboraldiaurrea eta ez zenbaki bat izateko bakarrik, lehen taldean geratzeko aukerekin baizik.

IMQ Igurco

Adinekoentzako zaintza eta arreta espezializatua

IMQ Igurco Orue

94 630 05 50 San Miguel de Duda z/g

IMQ Igurco Azkuna

94 630 99 55 José Antonio Aguirre 2

ekin
 thinking together

BROTXAKETAREN ETA
IJEZKETAREN ALORREKO
KIDE GLOBALA

www.ekin.es

"Bertigoagaz, baina pozik igoko gara balkoira"

ITXASO IRIONDO KARMENGO AMA IKASTETXEKO ZUZENDARIA

75. urteurren betean, Zornotzako jaietako txupin bateratua botako dute Karmengo Ama ikastetxeko eta SD Amorebietako ordezkariak, uztailaren 15ean

Aritz Maldonado ZORNOTZA

"Urduri, baina ilusionaturik" daude Karmengo Ama ikastetxeko komunitateko kideak egun hauetan. Oraindik pregoia borobildu barik duten arren, argi dute zein izango duten mezua. "Balkoitik herri osoa ikustekak bertigo pixka bat ematen du, baina ikastetxearen mezua zabaltzeko aukera ona da, hau da, jaiak errespetuz bizitzea eskatzeko", azaldu du Itxaso Iriondo ikastetxeko zuzendariak.

Zelan jaso duzue pregoia irakurtzeko gonbidapena?

Sopresaz, ez genuen espero; udaletxetik deia jaso genuenean, ezagunen bat txantxetan zebi-



Itxaso Iriondo, Zornotzan.

lela pentsatu genuen. Behin hotzean hartuta, ohore bat da. Herrian 75 urte daramatzagu lanean, herritar asko igaro dira gure eskolatik, eta Zornotza den modukoa bada, era batera edo bestera, apur bat bada ere, gure ekarpenagaitik ere bada. Guretik pasa diren ikasleek gugandik balore horiek jaso dituzte, eta beraz, sorpresaz jaso dugu, baina pozik.

Badakit oraindik pregoia idatzi barik duzuela, baina, zein mezu zabaldu gura duzue?

Gure izaera kontuan hartuta, eskola bezala baloreak asko zaintzen ditugu, eta hori islatu gura dugu bai herrian, baita jaietan ere. Egun asko dira jaietan, eta errespetuz eta elkarrengaz gozatzeko egunak izan behar dira, disfrutatzeke egunak, eta inork inor molestatu barik. Herriko hiri-altzariak ere errespetatu behar dira, ez bakarrik pertsonak. Paperontzi, horma edota dena delakoak hondatzeak prezio bat du, eta zaindu egin behar dira.

Nortzuk igoko zarete balkoira?

Eskola amaitu aurreko egunean jaso genuen deia, eta ostean

parte-hartze prozesu bat abiatu genuen, balkoira nor igo erabakitzeke. Ikasleak, ahiztak, eskolako irakasleak eta Karmeliten ahizpetakoren bat ere egongo da. Ikasleren batek zerbait esatea ere ondo egongo litzateke.

75 urtean nolako ekarpena egin dio ikastetxeak Zornotzari?

Oso parte-hartzaileak gara, eta antolatzen diren ekimen askotan parte hartzen dugu, adibidez, Euskal Jaietan, edota Zornotzako jaietako hainbat ekintzatan. Herriagaz lotura ona dugu, eta zerbait egiten denean apuntatzen gara.

Zelan biziko dituzue aurten herriko jaiak?

Ikastetxea garen heinean, herritarrek parte hartzen duten ekintza ahalik eta gehienetara joaten saiatuko gara. Kontzertu edo antzerkietara joatea, adibidez, ondo dago, noski, baina ikastetxe bezala, uste dugu garrantzitsuenak herritarrek protagonista diren ekitaldiak direla, hau da, marmitako txapelketa, pregoia, danborrada eta txistularien kalejira, adibidez.

URTZA
TABERNA

Tel.: 94 673 15 57
Luis Urrengoetxea Hiribidea, 11
Amorebieta-Etxano

Kurrusku
Berria

Sabino Arana kalea, 13
Tel.: 634 058 796
Zornotza

uxarte
SAGARDAOGINTZA

Montorra, 6 ZORNOTZA - Tel.: 946 308 815
www.uxarte.com

**ZABALIK
OSTIRALETAN ETA
ASTEBURUETAN**

**ASTEAN ZEHAR
ENKARGUZ**
Gutxienez 15
laguneko taldeentzako

XBERJ
taberna

Zezilia Gallartzagaitia, 9
Tel.: 946 181 758

HOGAN'S
IRISH TAVERN

Amorebieta / Etxano

Tel.: 94 673 47 58
San Juan Kalea 1,
Amorebieta-Etxano

izartool.com

izartool
CUTTING TOOLS

Ondo pasa Jaietan!

"Arazo sozialak ikuspegi intimotik idazten ditut"

MUSIKA LEIRE VARGAS IDAZLEA

Leire Vargas eta Jaime Nietok 'Bizi sintetikoak' poesia emanaldi musikatua eskainiko dute uztailaren 17an, eguena; 19:00etan izango da, Benita Uribarrena parkean

Aritz Maldonado DURANGO

Leire Vargas idazle durangarrak *Bihotz-museo bat* poema-liburua argitaratu eta honen aurkezpenak egiten zebilela jaio zen *Bizi sintetikoak* emanaldi musikatua egiteko aukera. Jaime Nieto musikariagaz (El Culpio Ase-sino, We Are Standard...) batera, "elkarrizketa bat" proposatzen dute, musika elektronikoaren eta ahozko poesiaren artekoa. Bilboko Zazpi Katu gaztetxeko aurkezpenaren geratu behar zenak, hainbat geltoki izan ditu ordutik. Hurrengo, Durango, datorren egunean, hilak 17. Benita Uribarrena parkean egingo dute emanaldia, 19:00etatik aurrera; euria eginez gero, Arte eta Historia Museoa egingo dute.

Nola aurkeztuko zenuke 'Bizi sintetikoak'?

Musika elektroniko eta ahozko poesia uztartzen dituen emanaldi bat da. Nahiko organikoki, eta hasiera batean, proposamen puntual baterako sortu genuen



Leire Vargas eta Jaime Nieto.

Jaimek eta biok. Bilboko Zazpi Katu gaztetxean liburuen aurkezpena egiteko modu desberdina izan zitekeela pentsatu genuen, eta horretarako sortu genuen, nahiko modu intuitiboan eta bakoitza bere elementuagaz jo-

lasten; ni poesiagaz, eta Jaime musikagaz. Testu gehienak, ahozkorako sortuak dira, eta orduan, bion arteko elkarrizketa moduko bat sortzen dugu, musika elektronikoaren eta poesiaren artekoa. Orokorrean intimitatearen in-

guruan berba egiten dugu, gai sozialez hausnartzeko.

Ekitaldi bakarrerako sortu zenuten, baina hainbat emanaldi eskaini dituzue, ezta?

Nik uste dut harrera ona izan duela, apur bat desberdina baita Euskal Herri mailan. Orain ahozko poesia emanaldi nahiko egiten dira, baina asko dago esploratzeko oraindik; orokorrean, jendea entzuteko gogoz dagoela esango nuke, batez ere, zerbait desberdina eskaintzen bada. Hasieratik tokia izan dugula esango nuke, beraz.

Lehenengo biderra duzu musikagintzan?

Bai, lehen esperientzia izaten ari da. Letrak-eta idatzi izan ditut, eta beti izan naiz musikazalea, baina nolabait esateko, musikazale pasiboa. Orain honekin zuzenean hartu emanean egonda, gozatzen ari naiz.

Bertsotan, oster, bai aritu zara. Eroaago errezitatzen?

Bai, azkenean, ni bertsora poesiagaitik ailegatu nintzen. Gustorago nago poesiagaz, niri gehiago interesatzen zait pausaje hori, hausnartzeko, edo esan gura dudanerako berbak ondo aukeratzeko. Poesiak horretarako balio dit, eta aldi berean, ahozko poesiak presentzia bat ematen dizu, gorputza eta ahotsa ipintzeko, eta berbei nahi duzun pisua eta tonua emateko ere; gainera, zuzenean, irakurlea bera interpelatzeko aukera dago, erreakzioa ikusteko. Hori

da poesiak ematen didana eta gozarazten nauena.

Testuetako batzuk 'Bihotz-museo bat' liburukoak dira, eta beste batzuk berriak. Nola egin duzu auke-raketa?

Ahokorako funtzionatzen didatenak aukeratu ditut. Gaiei dagokionez, *continuum* batean dago interesatzen zaidana. Gai sozialen inguruko hausnarketa egin ohi dut, eta ikuspegi beretik, poema guztietan zalantzan jartzen dut ezarrita dagoena, eraldatze nahi batetik ikusita, eta gure intimitatean lur hartzen duen modura eramanda, hau da, askotan idazten dut arazo sozial batek gure errealitate intimoan duten itzulpen intimotik abiatuta.

Baduzue beste emanaldirik lotuta?

Bai, baditugu gutxi batzuk, eta gehiago lotzeko asmoa ere badugu, aukera sortzen bada.

"AHOZKO POESIA EMANALDI GEHIAGO EGITEN DIRA ORAIN, BAINA ASKO GERATZEN DA EGITEKO"

"POEMETAN ZALANTZAN JARTZEN DA EZARRITAKOA, ERALDATZEKO NAHITIK"

Musikaireren hitzaldi hirukoitza Lariz jauregian, gaurtik hasita

MUSIKAIRE Audience, Anari eta Sol talde palestinarrek emanaldiak eskainiko dituzte Elorrioko Musikairen

A. M. ELORRIO

Musikaire jaialdiaren kokagunea Lariz jauregia izango da aste-buru honetan. Barikuan, zapatuan eta domekan, bertan izango dira emanaldiak. Lehenengo hitzordua Audience taldeagaz izango da, gaur. Emanaldi berezia izango da gaurkoa, izan ere, Bob Dylanen abestiegaz atera duten diskoa aletuko dute; 2023an kaleratu zuen talde bizkaitarrak Bidehuts disketeagaz *Bob Dylan berrikusia* diskoa. 20:00etan izango da emanaldia.

Bigarren hitzorduko protagonista Anari izango da. Seikote formatuan joko du Elorriko, *Giza zarata* diskoaren aurkezpenetan egiten ari den bezala. Kontzertu hau ere, 20:00etan izango da. Domekan, oster, Sol Band talde palestinarrek eskainiko du emanaldia, 19:00etan. Talde palestinarreko kideek ihes egin behar izan zuten Gazako zerrendatik 2024ko otsailean, eta ordutik euren musika mundu osoan zehar zabaltzen ari dira. Taldekideen berbetan, pop

eta folk arteko nahasketa bat egiten dute.

Uztailaren 27ra arte

Datozen asteetan ere egongo dira emanaldiak Musikaire jaialdiaren baitan. Besteak beste, Olatz Salvador, Bascolombia, Gorka Hermosa eta Garikoitz Mendizabalen *Sustraiaren matxinada* eta dantza garaikide emanaldia ikusi ahalko dira. Herriko plazan eta Arespakotxaga jauregiko lorategian izango dira ekitaldi horiek.

DATOZEN ASTEETAN BASCOLOMBIA, OLATZ SALVADOR EDOTA PETTI IKUSI AHALKO DIRA



Anarik zapatuan eskainiko du kontzertua.

Aritz Maldonado DURANGO

Erromeria ulertzeko eta gozatzeko modu desberdinak batuko dituzte Durangon urriaren 4an. Izan ere, Bizkaiko Erromeria Eguna egingo dute egun horretan bertan. Belaunaldien arteko festa izatea gura dute antolatzailleek. "Erromeriak gure kultura eta nortasunaren parte dira. Urteak aurrera joan ahala, gure gizartea aldatu den bezala, erromeriak ere egokitu egin dira gaur egungo estiloetara eta Erromeria Eguna horren adibide garbia da. Belaunaldien arteko festa izatea gura dugu, gure kulturaren oinarritutako jaia eta gure sustraieztasun ikasteko aukera emango digun ospakizuna", azaldu du Leixuri Arrizabalaga Bizkaiko euskara, kultura eta kirol foru diputatuak. Foru Aldundiak, Durangoko Udalak eta Danok Pro kooperatibak elkarlanean antolatu dute hitzordua. Hain zuzen ere, Durango "euskal tradizioaren, musikaren eta kulturaren epizentro" bihurtuko dela nabarmendu du Mireia Elkororibe alkateak. "Erromeriaren bidez gure ondare immateriala biziberritzeko, belaunaldi berriei transmititzeko eta gurea egiten jarraitzeko sekulako aukera eta ohorea da Durangon lehen edizio hau ospatzea", azpimarratu du.

Danok Pro kooperatibako kidea den Jon Gomez Garaik, ostera, "erromerien sorburura" hurbiltzeko aukera izango dela nabar-

Bizkaiko Erromeria Eguna lehenengoz Durangon

DANTZA Urriaren 4an Bizkaiko Erromeria Eguna egingo dute Durangon, lehenengoz; belaunaldi desberdinak batzeko asmoagaz antolatu dute, baita "erromeriaren kontzeptu desberdinak" batzeko; egun osoko egitaraua izango du jardunaldiak



Bizkaiko Erromeria Eguneako antolatzaile eta parte hartzaileak.

mendu du, baita bilakaera eza gutzeko aukera ere. "Orain ehunka urte gure aurreko belaunaldiek txistulari eta danbolin-jole bakarrarekin gozaten zuten; beranduago, alboka eta panderojole banarekin, eta ostean etorri zen trikitixa gure plazetara". Bizirik dagoen formatua dela aldarrikatzeaz gainera, parte-hartzaileetako batzuk aletu ditu: besteak beste, Ibon Koteron eta Julen Begoña albokiariak, Iker Alvarez eta Aitor Urkizu txistulariak, Mirari Azkune eta Aintzane Agirrebeña trikitilariak, eta berriz elkartuko diren Zabaleta eta Motriko "trikitilari historikoak". Durangoko 13 elkarte ere parte hartuko dute.

Egun osoz, erromeriaren ertz desberdinetan sakonduko da, herri osoan zehar. Horrela, dantza plaza Aikogaz, gaztetxoentzako dantzaldia Esna Gazte taldeagaz, herri bazkaria, edota Luhartzen eta Goazen telesailen aktoreen kantaldiak egongo dira. Bestalde, Gari Otamendi eta Oier Araolaza dantza adituek hitzaldia eskainiko dute, eta Ane Albisuk buruko-zapia nola jantzi erakusteko ikastaroa eskainiko du. "Ez da jaialdi ludiko bat bakarrik, ekarpena egin gura dugu, eta herritarrek hausnartzea ere bai. Parte hartzeko, ez da beharrezkoa dantzan jakitea; dantzagaz gozatu nahi duen orok lekua du hemen", gehitu du Gomezek.



GAI LIBREAN

MIREN ERDOIZA MUJICA BEHARGINA

Erabaki onak

Uda erromantizatzen ez dugunontzako erabaki onen zerrenda:

Izara garbiekin jantzi ohea. Jaso sukaldea. Etzan sofán. Jan makarroiak tomate eta txorizoagaz. Eta gaztagaz ere bai. Izozkia erosi gauerako. Jaitsi pertsianak egunez. Egin lo leihoa zabalik. Negar egin. Gogoratu iazko uda mugikorrek argazkietan. Oroitu zeinen ederra izan den udaberria. Entxufatu haizagailua. Piztu telebista eta itzali burua.

Kendu kuleroak lotarako. Edo kendu kuleroak, besterik gabe. Jantzi top hori bihar. Biluztu errekan. Eta biluztu hondartzan. Eta biluztu ohean. Biluztu zure ohean eta besteenetan. Entzun Jimena Amarillo eta Hofe. Mika, La Oreja de Van Gogh, Social Distortion, Merina Gris eta Amaral. Maio, Don Omar, Nakar, Ken7, Benito Lertxundi, Carla Morrison, Janus Lester, James Blunt, Morgan. Entzun abesti hori nahi duzun aldiro.

Bozgorailutik, mugikorretik, aurikularretatik. Berriro, berriro, berriro. Deitu lagunei. Kontatu zer duzun. Atera kalera. Ibili oinez edo egin arineketan zelaian, asfaltoan, lokatzetan, haretan.

Itxi logelako atea. Sartu mantapean. Jarri Youtubeko bideo zaharren bat. Egin igeri uretan eta marianitotan.

ERREPARATU INSTAGRAMEKO POST INOZOEI. BETI EGONGO DA ZU BAINO GEHIAGO SUFRITZEN DUENIK

Azeitunak eskatu tabernan. Siestak egin. Luzeak. Laburrak. Adurra darizula esnarazten zaituztenetakoak. Ausartu ilea moztan. Bazkaldu amagaz. Egin metxa modernoak. Irakurri liburu gordinak. Erreparatu Instagrameko post inozoei. Beti egongo da zu baino gehiago sufritzen duenik.

Eraman iloba parkera. Hartu bizikleta. Igo aldapak. Eman krema. Busti hankak. Afaldu oilaskoa Intxaurren eta atuna Saturrararen. Dutzatu eta igurtzi Aloe Veratan. Prestatu tupper goxo bat biharko. Edan hozkailutik atera berri duzun ura. Zaindu landareak. Kexatu behar duzunetan. Margotu ezpainak gorriz. Idatzi Anbotoko zutabea. Egin dantza txosnetan. Eta etxeko ispilu aurrean, edo igogailukoan.

Joan hara. Bueltatu hona. Egin barre. Edo ez. Berdin dio. Baina hartu erabaki onak.

Besarkada estu bat udak infernu zaizkizuenoi.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHENA-GO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 11

ABADIÑO Sankristobalak
Parrillada DJ Kool-ek girotua, 20:30ean.
Kontzertuak: Indabe + Rebel Noise + Nevadah.
Mendiola auzoan, 22:00etan.

DURANGO Erakusketa
Eibarko 30 bat artisten lanak. Eibarko Artisten Elkartegaz elkarlanean antolatu du erakusketa Durangaldeko Artisten Elkartek. *Ezkurdi erakustaretoan, uztailaren 13ra bitartean.*

DURANGO Erakusketa
'Bizitza baten isileko lana'. Ignacio Andreu Uriarte durangarraren lanak. *Arte eta Historia Museoan, hilaren 20ra arte.*

ELORRIO Kontzertua
Audience taldeak *Bob Dylan berrikusia* lana aurkeztuko du. *Lariz Jauregian, 20:00etan.*

ZAPATUA 12

ABADIÑO Sankristobalak
Bazkari autogestionatua, 14:00etan. Asier Kidam magoa, 17:00etan. Tortilla txapelketa, 19:00etan. Luhartz, 22:00etan. *Mendiola auzoan.*

ABADIÑO Kontzertua
Urkari taldea. *Taberna Zarran, 20:00etan.*

ELORRIO Bisita gidatua
'Basilikaren barrenak'. Izena eman behar da aldezturik, 94 682 01 64 edo 688 77 62 70 telefono zenbakietara deituz edo *turismoa@elorrio.eus* helbide elektronikora idatziz. *Elorrian, 11:00etan.*

ELORRIO Kontzertua
Anari. *Lariz Jauregian, 20:00etan.*

GARAI Tailerra
Serigrafia tailerra, Torontileren eskutik. *Frontoian, 11:00etan.*

IURRETA Bizikleta irteera
Oletara bizikleta irteera. Iurreta Txirrindulari Elkartea. *Iurretan, 08:30ean.*

ZALDIBAR Bisita gidatua
'Bainuetxearen oihartzuna'. Gerediaga eta Urkiola Landa Garapena elkarteek antolatutako doako bisita gidatua. Ezinbestekoa da aldezturik izena ematea eta baieztapena jasotzea. Horretarako, Gerediaga elkartera deitu daiteke (94 681 80 66) edo *gerediaga@gerediaga.eus* helbide elektronikora idatzi. *Zaldibarren, 11:00etatik 12:30era.*

DOMEKA 13

ABADIÑO Sankristobalak
Alluitz dantza taldea, 12:00etan. Ugasixo eta bolo txapelketa, 13:00etan. Errifen zozketa eta Donien Atxa botatzea, 14:00etan. *Mendiola auzoan.*

BERRIZ Sankristobalak
Jaien hasiera, 10:30ean. Meza, 11:00etan. Ondoren, salda eta pintxoak. Iremiñe dantza taldea, 12:30ean. Igel txapelketa, 13:30ean. Umeentzako jolasak, 17:00etan. Bolo txapelketa, 17:30ean. Jaien amaiera, 19:30ean. Egun osoan gazta-pisu lehiaketa. *San Kristobal Txiki ermitan.*

DURANGO Dantzaldia
Nagusientzako dantzaldia. *Ezkurdi, 18:30etik 20:30era (euria bada, Plateruenan).*

ELORRIO Kontzertua
Sol Band. *Lariz Jauregian, 19:00etan.*

IURRETA Bizikleta irteera
Gatikara bizikleta irteera. Iurreta Txirrindulari Elkartea. *Iurretan, 08:30ean.*

UZTAILAK 15

MAÑARIA Urmuga
Et Incarnatus Orkestra. Haiekin batera, Piratak, Hatxe, Leturia eta



DURANGO Antzerkia
Maleta Company & Cie. Balancetoi konpainiak *Claudette* aurkeztuko du, Durangon. 90 urte betetzear den eta bakardadeagatik sumindutako emakume baten istorioa kontatzen duen lanak Munduko Ikuskizun Onenaren saria irabazi zuen iaz Leioako Umore Azokan. *Uztailak 11, barikua, Platerueneko terrazan, 20:00etan.*

Irati Arcelus, Eñaut Elorrieta, Janus Lester eta Xak taldea arituko dira. *Angurreta Harrobian, 18:30ean.*

EGUENA 17

ATXONDO Ikuskizuna
¡Que buen día! klowñ ikuskizuna (Maite Guevara). *Apatako plazan, 20:00etan.*

BERRIZ Antzerkia
'Batetik bestera' (Benetan be). *Berrizjauregin, 17:00etan.*

DURANGO Ikuskizuna
'Bizi sintetikoak' (Leire Vargas eta Jaime Nieto). Poesia eta musika elektronikoa uztartzen dituen emanaldia. *Benita Uribarrena parkean, 19:00etan.*

ELORRIO Kontzertua
Ganibet taldea. *Portalekuan, 21:00etan.*

BARIKUA 18

DURANGO Erakusketa
Rosa Maria Sanchezen lanak. *Ezkurdi erakustaretoan, uztailaren 27ra bitartean.*

ELORRIO Kontzertua
Bascolombia. Oreka TX eta Phonoclórica musika taldeak sortutako proiektua. *Plazan, 22:30ean.*

IURRETA Santamañak
Meza Santua, 11.30ean. Jarraian, gozokiak, karramarroak eta edaria banatuko dute. Santa Mañako XLV. Tortilla Txapelketa eta XXXIX. Igel Txapelketa, goizean zehar, Santa Mañako basilizian. Santa Mañako LVI. Briska Txapelketa, 18:00etan, Amezketako eskolan. Ume eta helduentzako jolasak eta pottokak, 19:00etan, Amezketako inguruetan. *Arriandi auzoan.*

ZAPATUA 19

DURANGO Bisita Gidatua
'Heriotzaren kultura'. Euskal Herriko heriotzaren kulturagaz lotutako erritu eta ohiturak ezagutzeko doako bisita gidatua. Durangoko hilerria eta Tabirako San Pedro eliza bisitatuko dituzte. Aldez aurretik izena eman behar da 94 603 39 38 telefono zenbakira deituta edo *turismo@durango.eus* helbide elektronikora idatzita. *Turismo Bulegoan, 10:30etik 12:00etara (gasteleraz) eta 12:30etik 14:00etara (euskaraz).*

DURANGO Ikuskizuna
'El peor espectáculo del mundo' (Zanguando Teatro Konpainia). *Ezkurdi, 22:00etan (euria bada Landako Gunean).*

ZINEMA

ABADIÑO (AIRE ZABALEAN)


GEREDIAGA ERMITAN

Irati
Barikua 11: 22:00.
(Euria bada, Traña-Matienako eskolako aterpean)

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

Superman
Barikua 11: 17:45, 20:30.
Zapatua 12: 16:30, 19:00, 21:30.
Domeka 13: 16:45, 19:30.
Astelehena 14: 17:30, 20:15.
Martitzena 15: 17:30, 20:15.
Eguaztena 16: 19:00.
La mercancía mas preciosa
Barikua 11: 18:00.
Zapatua 12: 19:30.
Domeka 13: 19:30.
Astelehena 14: 20:15.
Martitzena 15: 20:15.
Eguaztena 16: 19:00.
Elio
Barikua 11: 18:00, 20:30.
Zapatua 12: 17:00, 19:30, 21:30.
Domeka 13: 17:00, 19:30.
Astelehena 14: 18:00, 20:15.
Martitzena 15: 18:00, 20:15.
Eguaztena 16: 19:00.



Jurassic World: el renacer
Barikua 11: 20:30.
Zapatua 12: 17:00, 21:30.
Domeka 13: 17:30.
Astelehena 14: 17:30.
Martitzena 15: 17:30.

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

El furia nocturna
Barikua 11: 20:00.
Zapatua 12: 17:00, 20:00.
Domeka 13: 17:00, 20:00.
Astelehena 14: 20:15.

IURRETA Santamañak
Herri bazkaria. Ondoren, trikitilariak alaituko dute giroa. *Amezketako eskolan, 15:00etan.*

ELORRIO Kontzertua
Pettiren *XX ta bortz. Plazan, 22:30ean.*



Korrikalari bi helmugara heltzen, iazko lasterketan. LUCIA MERUELO

300 korrikalari Zaldu Trailen, inoizko gehien

MENDI LASTERKETA Zaldibarko mendi lasterketaren hirugarren aldia orain arteko jendetsuena izango da. Lasterketa laburrak 170 korrikalari batuko ditu, eta luzeak 145. Probaren ostean, DJ batek musika jarriko du plaza ondoko Sorgin tabernan

Joseba Derteano ZALDIBAR Zaldibarko Zaldu Trail lasterketaren hirugarren aldia orain arteko jendetsuena izango da. Zapatuan 300 bat korrikalari elkartuko dira irteera puntuan, lasterketa luzearen eta laburra- ren artean banatuta. Iaz 100

parte-hartzaile inguru batu ziren.

Zaldua Mendi Taldeko antolatzaileek ahalegin berezia egin dute lasterketaren berri lau haizetara zabaltzeko eta lanak bere fruituak eman ditu. Gainera, Durangaldeko Kopa izaten

ari den tiroia izan daiteke probaren hazkundea ulertzeko beste faktore bat.

Lasterketa bi izango dira. Luzeak 19 kilometro ditu, 1.235 metroko desnibel positiboa-gaz. Korrikalariak Goierri ingurutik Eitzagara joango dira.

Osteko bidea gorabeheratsua da eta Egoarbitzarako igoeran izango dituzte aldatsik gogorrenak. Aurreko aldiekin alderatuta, ibilbidean aldaketa txiki bat dago: urtero lez, Satamañazarrera igoko dira, baina beste bide batetik, baso lanek eraginda. Beste bidearen antzerakoa dela diote antolatzaileek, baina bertikalagoa.

Lasterketa laburragoak 14 kilometro ditu, 745 metroko desnibelagaz. Luzearen antzeko ibilbidea du, baina Eitzaga auzotik zuzenean joango dira Aixelako presara, Egoarbitza tonorrera igo barik.

Lasterketen ordutegiari dagokionez, aurreko aldietan baino orduerdi lehenago hasiko dira: luzea 09:30ean, eta laburra 09:45ean. Uztailko tenperatura beroak ekiditeko hartu dute erabakia. Proba biak udaletxeko plazan hasi eta amaituko dira. Amaieran, DJ batek musika jarriko du plazaren ondoan dagoen Sorgin tabernan.

Erreleboa

Zaldua Mendi Taldea galtzeko arriskuan egon zen iaz, harik eta herritar talde bat erreleboa hartzeko prest agertu zen arte. Harrezkero, hainbat ekimen antolatu dituzte: irteerak, hitzaldiak... eta harrera ona izaten ari dira. "Jendea parte hartzeko gogotsu ikusten dugu eta pozik gaude", azaldu du mendi taldeko Mikel Arroita.

Aranburu eta Urkiaga Kopako lider

Zaldu Trail lasterketa Durangaldeko Kopako hirugarren hitzordua izango da. Gizonetan, Irazu Aranburu dago lider une honetan. Orain arteko lasterketa biak irabazi ditu: bere sorterriko 7 Pago eta Berrizko Amaraun. Emakumeetan lider aldaketa gertatu zen Berrizen. Une honetan Itsasne Urkiaga zornotzarra dago lehenengo postuan, Mallabian bigarren eta Berrizen hirugarren amaitu ostean.

ANBOTO Kopako babeslea da eta gertuko jarraipena egingo dio zapatuko lasterketari www.anboto.org atarian. Besteak beste, lasterketaren kronika eta argazki galeria zabala egongo dira ikusgai.



Aranburu eta Urkiaga.

Pilota partida profesionala ikusteko aukera Otxandioko jaien barruan

PILOTA Atariko partidu baten ostean, lehenengo mailako partidua egongo da Otxandioko pilotalekuan: Ezkurdia eta Iztueta Artolaren eta Martijaren aurka

J.D. OTXANDIO

Otxandioko jaien barruan pilota profesionaleko partiduak egongo dira uztailaren 19an, 19:30ean. Atariko partiduan Peña Iiak eta Gabirondok Salaberriaren eta Arangurenen kontra jokatuko dute. Estelarrean binakako txapelduna den Joseba Ezkurdiak Martxel Iztuetagaz jokatuko du eta Iñaki Artola eta Julen Martija izango dituzte kontrario.



Joseba Ezkurdi binakako txapelduna da Beñat Rezustarekin batera. ASPE PELOTA

Eneko Hernando, gazteen taldetik Kulturalako nagusietara

FUTBOLA Durangoko Kulturalak harrobira jo du atezain postua indartzeko eta Hernando lehen taldera igo du

J.D. DURANGO

Durangoko Kulturalak harrobira jo du datorren denboraldiko taldea indartzeko. Eneko Hernando gazteen A taldetik Hirugarren RFEF mailan dabilen talde nagusira igo dute. "Lehen taldean jokatzeak aukera izateagaz oso pozik nago", adierazi du jokalaririk igoberriak.

Atzeko lerroari begira, fitxaketa bat ere egin du Kulturalak. Asteon jakinarazi dutenez, Alcorcon B taldetik Ugaitz Martinez zentrala ekarri dute. Denboraldiko lehen fitxaketa da.



Eneko Hernando. AZPABLOSKY



Fabien Ituarte Lesakan irabazitako txapelarekin.

Fabien Ituarte atxondarrak bi txapel irabazi ditu bi asteburutan

PILOTA Buruz buru heldu dira garaipen biak: Kluben artekoa kantxa osoan eta Lesakako torneoakaiolan

J.D. ATXONDO

Fabien Ituarte sasoian dago eta buruz buru jokatzeko dituen dohaiak erakusten ari da bai kantxa osoan eta baita kaiolan ere. Asteburu bitan final bi jokatu eta biak irabazi ditu aurrerari atxondarrak. Gainera, final bietan alde handiagaz menderatu ditu aurkariak.

Lazkaoko Lapke klubeko pilotariak Euskal Herriko Kluben Arteko txapelketa irabazi zuen orain asteburu bi. Antzuolako pilotalekuan eta kantxa osoan jokatuak finalean 22-5 hartu zuen mendean Eple klubeko Olai-

zola. Ituarte askoz gehiago izan zen. Joan zen zapatuan bolada onari jarraipena eman zion Lesakako San Fermin torneoak irabazita. Kasu horretan lau eta erdiaren barruan lehiatu zen. Joku bizia eta berehalako erabakiak eskatzen dituen modalitatean bikain moldatu zen eta 22-12 irabazi zion Oiarpe taldeko Oier Zabaletari.

Aurten beste txapel bat ere irabazi du. Urte hasieran Gipuzkoako buruz buruko txapelketa irabazi zuen. Orduan ere xehatu egin zuen aurkaria: 22-4, Gorostidiren aurka.

Athletic-Ponferradina, mendeurrena ospatzeko

FUTBOLA SD Amorebietaren ehun urteak ospatzeko partidua uztailaren 19an, 20:00etan jokatu da. Amorebietak ez du jokatu aurreikusita zegoen moduan, denboraldiaurrea hasi barik izango duelako. Ponferradinak hartu du bere tokia

J.D. ZORNOTZA

Hasiera batean, SD Amorebietak (SDA) eta Athleticek jokatu behar zuten mendeurrenako partidua, baina plana aldatu behar izan dute eta SDAk ez du jokatu. Aldaketa Athleticen entrenatzaile Ernesto Valverdek proposatu du. Txapeldunen ligara bueltan, denboraldi exigentea dute aurretik eta entrenatzaile zuri-gorriak "erresistentzia nahikoa" eskainiko dieten taldeak gura ditu denboraldiaurrean, SDAk ohar batean azaldu duenez. Amorebietak ez du baldintza hori betetzen, partiduen egunean denboraldiaurrea hasi barik izango duelako; bost egun geroago ekingo diote, hilaren 24an.

Horiek horrela, beste aurkari bat bilatu behar izan dute. SD Ponferradina da aukeratua, aurreko denboraldian Hypermotion Ligara bueltatzeko atarian geratu zen taldea. Horrela, uztailaren 19an, 20:00etan, Urriksen ikusgai



Urritxe futbol zelaian jokatu da partidua. SD AMOREBIETA

egongo den partidua Athleticen eta Ponferradinaren artekoa da.

Sarrerak

SDAko bazkideek lehenatasuna izango dute sarrerak erosteko orduan. Uztailaren 14an eta 15ean

erosi beharko dituzte San Migel kalean dagoen klubeko dendan, 10:00etatik 14:00etara. Publiko orokorrarentzako sarrerak uztailaren 17 eta 18an salduko dira, bai SDAren dendan, bai klubaren webgunean.



JOKALDIA

MIKEL CANIBE ANSORENA LARRASOLOETA XAKE TALDEA

Xakea, bakardadea eta osasun mentala

Gaur egungo gizartean, gero eta gehiago dira depresioa, antsietatea edo isolamendua bezalako osasun mentaleko arazoekin bizi diren pertsonak. Xakea, itxuraz jolasa besterik ez dirudien arren, batzuentzako askoz gehiago da: errealitateagaz lotuta mantentzeko modua, konektatzeko tresna eta burua zaintzeko bide bat.

Iluntasunean babesleku bat aurkitzeko erabili daiteke. Depresioak motibazioa, energia eta zentzua desagerrarazi ditzake. Halakoetan, xakeak egitura simple baina senda bat eskaintzen du: 64 laukitxo, arau argiak eta helburu bat. Dena kaotiko dirudienean, taularen aurrean eseri eta jokatzeko, ordena apur bat ekar dezake. Jokoak eskatzen duen kontzentrazioak pentsamendu negatiboak zirkulua eten dezake, une batez bada ere.

Bakardadeak, batez ere adineko pertsonengan edo bazterketa egoeran daudenengan, osasun mentala okertu dezake. Xakeak, aurrez aurre edo online, harremanak

sortzeko aukera ematen du: hitzik gabe ere, beste batekin denbora partekatzeak aitzakia izan daiteke. Isilik jokatzen da, baina hizkuntza indartsua da; errespetuan eta arreta partekatuan oinarritzen den komunikazioa.

Depresioa duen pertsona batek askotan ezer ez duela ondo egiten sentitzen du. Xakeak, erronka txikiak eta etengabeko ikaskuntza eskaintzen dituen, lorpen txikiek autoestimua indartzen lagun dezakete. Mugi-

**"LORPEN TXIKIEK
AUESTIMUA INDARTZEN
LAGUN DEZAKETE:
MUGIMENDU EGOKI BAT,
PARTIDA BUKATU BAT..."**

mendu egoki bat, partida bukatu bat, estrategiaren ulermen apur bat... garaipen txiki horiek garrantzitsuak dira bizitzan aurrera egiteko.

Bururako atsedean aktiboa ere izan daiteke. Beste aisaldi pasibo batzuk ez bezala, xakeak parte-hartze aktiboa eskatzen du. Erabakiak hartu, aurkariaren asmoak aurreikusi, egoerara egokitu... Jarduera mental hori lagungarria da burua jardunean mantentzeko eta, aldi berean, eguneroko kezketatik ihes egiteko.

Hau guztia esanda, argi geratu behar da, xakea, ez dela beste ezeren ordezkaria. Xakeak ez du depresioa sendatzen, ezta terapia ordezkatzeko ere, baina lagungarria izan daiteke. Osasun mentaleko zentroetan, adinekoen egoitzetan, ikastetxeetan edo kolektibo ahulen artean, xakea tresna moduan erabiltzeak benetako eragina izan dezake. Ez da irabaztea edo galtzea: mugimendu bakoitzagaz aurrera egitea da.



Aner Peritz, Sustrai Colina, Onintza Enbeita eta Miren Amuriza Ainhua Urienen aginduetara izan ziren bertsotan. ZALDIBARKO UDALA



Olea kaleko sardina eta solomo janak ez zuen hutsik egin. ZALDIBARKO UDALA



Dantzariak jaietako irekiera ekitaldian.



Donien Atxa altxatzeko ekitaldiak ikusmin handia sortu zuen.

Giro herrikoia nagusi Zaldibarko jaietan

Lau egunean etenik barik jaietan egon eta gero, deskantsurako ordua iritsi zaie zaldibartarrei. Udazkenean, sanandresetan ospatuko dituzte hurrengo jai nagusiak, baina bitartean, udan, auzoetako ospakizunak izango dituzte Goerrin, Urizarren eta Sallabenten

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Herriko jai nagusiak amaituta, datorren urteko hitzorduaren zain geratu dira zaldibartarrak. Hilaren 3an, herriko plaza jendez lepo bete zen jaien irekiera ekitaldia bertatik bertara ikustera joandako herritarrez. Jaia hasten lehenak Herrixen Jaixek mugimenduko kideak izan ziren. Pregoio eta txapligu propioa irakurri eta bota zituzten Zaldia plazan, eta N-634 errepidea hartu zuten gero, alde zaharretik herrigunera arteko bidea jai giroan egiteko. Behin herritar guztiak plazan batuta, argia zen plana: Donien Atxa altxatzeko ordua zen.

Bezperan, pinua altxatzeko entsegua egin zuten, beterranoek herritar gazteei arbola zutik behar bezala zelan jarri erakusteko. Eta jaietako irekiera ekitaldian agerian geratu zenez, altxatzaile gazteek ederto batean ikasi zuten

beteranoenen teknika, ezelako arazorik barik, denbora tarte labur batean lortu zuten eta Donien Atxa zutik ipintzea.

Zaldibarko dantzarien taldea eta Iremiñeko txikiarren taldea (Berriz) herritarren lehenengo txalo zaparradagaz batera sartu ziren plazara. Luze barik batu ziren hitzordura, aurtengo txapligu jaurtitzaileak: Helmuga elkarteak emakumeak. Taldeak 20 urte bete ditu emakumeen ikusgarritasuna lantzen eta beren arteko hartu emanak sustatzen. Arrazoi horregaitik, haiek izan dira aurtengo txupinerak.

**DONIEN ATXA IPINI
BEZPERAN ENTSEGUA
EGIN ZUTEN, GAZTEEK
BETERANOEN
TEKNIKA IKASTEKO**

Dantzariak ezpatak goratu eta arkua eratu zuten, omenduak plazan barnerratu zitezten.

Dantza saioa zazpi jauziekin eta biribilketagaz amaituta, Helmugako kideek hartu zuten berba, udal ordezkariak ondoan. Taldekideek azken hamarkada bietan bidelagun izandako kideak eta herritarrek eskertu zituzten mikrofonoa eskutan, eta argi utzi zuten ez zutela ezelako erasorik onartuko, are gutxiago emakumeen kontrarik. Azkenik, txapligua lehortuta, jai giroak herriko kale guztiak hartu zituen. Zaldibartarrek udazken amaierara arte itxaron beharko dute hurrengo jai handiak, sanandresak, ospatzeko. Bien bitartean, auzoetako plaza txikiez gozatu ahal izango dute, baina. Goerrin, laster, eta Urizarren zein Sallabenten abuztu aldera.



'Herrixen Jaixek' mugimenduak Zaldia plazatik egin zuen jaietarako jaitiera.



Helmuga elkarteak udal ordezkarien ondoan irakurri zuen pregoia.



Zirko Txosko konpainiaren 'Tavol ' kale-antzerkia. ZALDIBARKO UDALA



Tipulagaz ala barik, patata-tortilla txapelketan parte hartzea izan zen garrantzitsuen. LUCIA MERUELO



Donien Atxa ipinita, herritarrek biribilketa eginda amaitu zuten dantza saioa.



Umeentzako parkea, eskolan. Z.U.



Txikienak bits artean freskatu ziren. Z.U.



Kuadrilla ugarik parte hartu zuten txosnetako herri bazkarian. LUCIA MERUELO



3x3 saskibaloit txapelketak kirolez busti zituen jaiak. ZALDIBARKO UDALA

KOMIKIA UNAI GAZTELUMENDI



GUARDIAKO BOTIKAK

UZTAILAK 11, BARIKUA
09:00-09:00
Sarria, Sasikoa 17 - Durango
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza
UZTAILAK 12, ZAPATUA
09:00-09:00
Unamunzaga, Muruetatorre 2C - Durango
Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza
UZTAILAK 13, DOMEKA
09:00-09:00
Campillo, Montevideo etorb. 24 - Durango
Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza
UZTAILAK 14, ASTELEHENA
09:00-09:00
Navarro, Artekalea 6 - Durango
Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza
UZTAILAK 15, MARTITZENA
09:00-09:00
Mugica, Andra Maria 9 - Durango
Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza
UZTAILAK 16, EGUAZTENA
09:00-09:00
Bazan, Uribarri 5 - Durango
Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza
UZTAILAK 17, EGUENA
09:00-09:00
De Diego, Intxaurreondo 22. - Durango
Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

24 orduz zabalik dauden farmaziak daude zerrendan.
22:00ak arte zabalik daudenak ikusteko: www.anboto.org/botikak

ZORION AGURRAK

GOZATU GOZOTEGIA
Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
☎ 661 40 14 00
f Gozatu Gozotegia
@ gozatugozotegia

Peio
Zorionak **Peio!** Jarraitxu zaien moduko mutil alaia eta maitagarria izeten. Besarkada eta musu handi bat familia guztixan partez.**Oihane Etxebarria**
Ekainaren 17an **Oihane Etxebarriak** 15 urte beteko ditu. Zure amets guztiak errealitate bihurtu daitezela. Zorionak Yosu eta Carmenen partez.

Urte askotarako!

Hamabostean behin, jasotako zorion-agurren artean **GOZATU gozotegiko tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion-agurrarekin batera.

Zoriondu itzazu lagunak eta senitatekoak; hiru bide dituzu:
Internet
Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta *Anboto.org/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.
Posta elektronikoa
Mezua bidali *zorionagurrak@anboto.org* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.
Ordezkaritzak
Etorri zaitetz Anbotoren ordezkarietara edo deitu 946 232 523 telefonora.

Berrizko Agenda Kulturala

Babooom- Antzerkia
San Kristobal txikikojaiek
Batetik Bestera-Musika
Folklore jaialdia

Uztailak 10, 17:00
Uztailak13, 10:30 -19:30
Uztailak 17, 17:00
Uztailak 23, 18:30

Uda osorako liburuak eraman!
Irailaren 15erarte

UDAKO MAILEGU POLTSAK

Nobedadeak eta beste Biblioteketako materiala izan ezik

Okm: batzen gaituen distantzia

anboto
kide

BERRIA!

BED 'S

- Momentuko deskontuaren gainean %5eko deskontua.

EILEKE

Psikologia, neuropsikologia, logopedia
eta psikomotrizitatea

- %15 eko deskontua saio solteetan.

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- %10eko deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

ETXEDREAMS

- %10eko deskontua dendako produktu guztietan.

GAU-TU

- Dendako ehun guztietan %10eko deskontua, eta 500 €-tik gorako erosketetan %5eko deskontua atseden sistemetan.

HITZ LIBURU-DENDA

- %10eko deskontua euskarazko liburuetan.

HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

- %15eko deskontua sarreretan.

HONTZA MUSEOA

- %50eko deskontua sarreretan.

IURRETA KOPISTEGIA

- %5eko deskontua eskola eta bulego materialean.
 - %5eko deskontua musika, opari eta liburuetan.
- Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

KEINU OPTOMETRIA ZENTROA

- Armazoizko lenteetan eta eguzkitako betaurrekoetan %10eko deskontua.

KIROL ERROTA GIMNASIOA

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

LANDAKO OPTIKA

- %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan, audilogian, ikusmen urritasunean eta armazoi eta lenteetan.

LA PERLA

- %15eko deskontua sasolan jartzeko talaso zirkuituan.
- %10eko deskontua osasun, lasaitasun eta edertasuneko banakako tratamenduetan.

MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

- %5eko deskontua 100 €ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100 €tik gorako erosketetan.

NAIA GORROÑO HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta erradiografiatan.

NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

- %5eko deskontua 20 €-tik gorako erosketetan.

OSASUN ETXEA

- Zatoz Osasun Etxera eta doako ebaluazio bat egingo dizugu zure gantz, eta muskulu-masaren portzentajearen berri emateko. (Novaline)

PSIKOLOGIA AMOREBIETA

- %20ko deskontua zerbitzu guztietan.

SOLOZABAL ALTZARIAK

- Denda eta erakusketako produktuetan %10eko deskontua (etxeke aire-goazarrietan izan ezik).

TABIRA BITXIDENDA

- %5eko deskontua 100 €ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100 €tik gorako erosketetan.

URALDE HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta erradiografiatan.

URKIOIL GASOLINDEGIA

- Izurtzako eta Otxandiko Urkioil gasolindegietan 3 zentimoko deskontua litroko.

URRIKE LIBURU-DENDA

- %5eko deskontua liburuetan.
- %10eko deskontua papergintzan.

URTXINTXA JOSTAILU DENDA

- %5 eko deskontua erosketen guztietan.
- %10eko deskontua 100 €-tik gorako erosketetan.

ZELAI ALAI

- Udalekuetan %10eko deskontua.



Atera etekina txartelari!

**Egin zaitez
Anbotokide:
946 816 558**

Deitu eta
eman izena!





LAU-HORTZA

MAITE EUBA

Urrutiko intxaurreak hamalau urreratu eta...

Gernikako arbola izan zen, akorduan dudala, nire lehen desilusioa. Mito bat jausi zitzaidan. Zazpi bat urte izango nituen eta etxean txangoa prestatu zuten arbola santua ezagutzeko. Bide guztian zehar ikusten nuen arbolatzar bakoitzeko TAKA nire galdera, hori da ARBOLA? Ez ba, ez da hori. Bidean aurrera egin eta heldu ginen leku sakratura...Nire espektatibak errealtitate gordinaren aurrean txiki-txiki eginda geratu ziren. Ez nuen ulertzen zelan zen posible nire aurrean neukan zimel, zahar, gauza ez zen enbor hura gurtzea gure herriak.

Harrezkero, eta urteen poderioz ikasi egin dut IKURRA dela berez garrantzitsua. Bere itxuraren gainetik duen balioa. Azalekoak baino barrukoak daukala inportantzia. Baina, asko daukat oraindik ikasteko itxura baten; nire desilusioak ez baitu atsedetik aurkitu. Adibideak hainbeste dira ze, zutabe honek ez lukeen nahiko tokirik izango.

Berriz ilusionatzea beharrezkoa da aurrera jarraitzeko. Mundu zabaleko desilusioei, min handiei, txikitik eraginda. Txikia noiz edo noiz handi egingo den esperantzagaz. Nire ingurukoak dira erreferenteak niretzat. Horiek dira nire ikurrak. Egunerokoan eta hurbilean mamia aurkitzea benetakoagoa da. Portzierto, Gernikako arbola eta biok aurkitu dugu elkar ulertzeko modua.

AKUILUA

"Urpekaritza aitzakia perfektua da bidaiatzeko"

JON BASAGUREN PRIETO URPEKARITZA INSTRUKTOREA

Bidaiatzeko eta mundua ezagutzeko grina asetu guran abiatu zen Durangotik, duela zortzi urte. Gaur egun, Maldivetan ematen du urtearen zati handiena

A.Basauri DURANGO

Bidaiatzea gustoko duen noma-datzat du bere burua Jon Basagurenek (Durango, 1987). Azken urteotan, Australia, Zeelanda Berria, Thailandia, Sardinia, Malta, Egipto, Mexiko, Malaysia, Japonia eta Indonesiako bizi izan da, gehienetan urpekaritzari esker. Gaur egun, Maldivetan ematen du denbora gehien. Divers Tribe (@divers_tribe.world) bidaia-agentzia sortu du bertan. **Gelditu gabe zabilta Durangotik abiatu zinenetik.**

Bai, nekez egoten naiz sei hila-bete baino gehiago herrialde berean. Bide pertsonal baten bila abiatu nintzen Durangotik, 2017an. Beti izan dut mundua ezagutzeko eta bidaiatzeko gogoia. Bada, ikusle soil izatetik, nire abentura-filmeko protagonista izatera pasatu nintzen. Nire lehen bidaia 19 urteaz egin nuen. Nikaraguara joan nintzen Leonekin GKEarekin. Uste dut han erein zela bidaiari hazia.

Zein ekarpen egin dizu bidaiatzeak? Gatxa da zehaztea, baina seguru-ruenik autoezagutzarako etengabeko ikaskuntza da bidaiatzeak emandako oparirik handiena. Bidean ezagututako pertsonak asko ematen dute, eta, konfort-za-



"ONTZI TXIKI BATEAN ZAZPI ORDUZ GALDUTA EGON NINTZEN THAILANDIAN, EKAITZ TROPIKAL BATEAN"

natik irtenda ere aurrera egin daitekeela ikasten da.

Urpekaritza esperientziak antolatzen dituzu. Zer du berezi itsas hondoak? Herrialde bakoitzean, ezusteko berriak eskaintzen ditu itsasoak: Maldivetan, marrazo asko, mantak eta dortokak daude; Mexikon,

baleak eta itsas lehoiak; Egipton, berriz, koralezko arrezife ikusgarriak. Divers Tribe munduko hainbat lekutatik etorritako gazteon komunitate txiki bat lez sortu genuen. Urpekaritza aitzakia perfektua da bidaiatzeko, leku berriak eta pasio bera partekatzen duen jendea ezagutzeko. Herrialde bakoitzeko kultura ezagutzen ere saiatzeko gara. **Izan duzu inoiz sustorik? Eta anekdota politik?**

Ontzi txiki batean zazpi orduz galduta egon nintzen Thailandian, ekaitz tropikal batean, tornadoekin, salbatu ninduten arte. Itsasoari errespetu handia izan behar zaio, dena oso azkar alda daiteke eta. Pasarte politenak egunerokoan bizi ditut: lehen aldiz norbait buzeatzera eramaten dugunean. Ur aspiko mundua deskubritzean aurpegietan islatzen den poza eta emozioa sekulakoa da. Egunerokoan jasotako oparirik ederrenetakoa da.

Itsas hondoaz gozatzeko leku bat? Toki bakoitzak bere magia du, baina bat aukeratzekotan Maldivetako Laamu atoloia. Paradisu txiki bat da. Itsas hondoak benetako akuarioa dirudi: marrazoak, dortokak, mantak, izurdeak... Natura bere purutasunean, gizakiaren eraginik barik.

Durangoren falta igartzen duzu? Durangon dut familia, eta askotan bisitan datozen arren, beti botatzen da faltan.

Etorkizunean non ikusten duzu zure burua?

Gatxa da esatea, ez dut jakiterik ze aukera sortu daitekeen. Proiektu berri batean gabilta orain, AVELO urperaketa-sistema irakasten. Leku asko daude ezagutzeko, eta nomada izateko grinak ez dakit nora eroango nauen.

Argia, espazioa eta ikuspegi paregabeak dituzten atikoak.

Azken fasea, lanetan.

Azken atikoak SAN ROKE BARRIAN, Durangon.

2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak. Ikuspegi irekiak eta terraza zabalak.

Etxebizitza pertsonalizagarriak. Sortu etxe bat zure beharren arabera.

Gune komun pribatuak: gimnasioa, ludoteka eta coworking gunea.

Informazio gehiago:
sukia.com 946 462 041

sukia
Zure etxean zaude. Estás en tu casa